



MATXISMOA ARI DU

Haur eta gazteen artean kale hizkuntza sustatzeko bi egitasmo martxan daude / 8-9

Arbizuko Udalak aurtengo inbertsio nagusiak agorri betean egin beharko ditu / 11

June Kintana disko jaurtizailea Portugalen dago, Europako Jaurtiketa Luzeen Kopan lehiatzen / 18-19

Lau urteren ondoren lortia kultur guneko oholdzara itzuliko da Burundar Txistulariak taldea / 23

SINADURAK



OIHANE ANDUEZA MIRIZALDU / 4



SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK / 4



JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON / 10



JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA / 22



ALTSASUKO INSTITUTUA

ATE IREKIAK
Martxoaren 14an
17:00etan



BATXILERGOKO ESKAINTZA:

Sakana egiten *dugu* Sakanak egiten *gaitu*



Zientzia eta Teknologia



Giza eta Gizarte zientzia



Orokorra



Irurtzongo Emakumeen Taldeko kideak. UTZITAKOA

"Zoritxarrez, oraindik bide luzea gelditzen zaigu egiteko"

AINHOA DORRONSORO GUINEA ETA ANITA KREBS IRURTZUNGO EMAKUMEEN TALDEA Emakumearen Egunaren inguruan programazio jarraitua hainbeste urtez duen Sakanako herri bakarra da Irurtzun

IRURTZUN

Martxoaren 8a dela eta, Irurtzongo Emakumeen Taldeko kideek 31. aldiz Emakumeari Buruzko Jardunaldiak antolatu dituzte. Egitaraua behar bezala garatze-

ko buru-belarri lanean ari dira aste hauetan. Hiru hamarkada emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko bidea egiten. 31 urtetan hainbat belaunalditako emakumezko

irurtzundarrek bat egin dute taldean. Eta hala gertatu da taldeak antolatu dituen hainbat jardueratan ere.

Noiz hasi zineten aurtengo Emakumeen Eguneko egitaraua prestatzen?

Ainhoa. Abenduan hasi ginen pentsatzen. Ilbeltzaren erdialdean Irurtzongo Kultur Kontseiluaren bilera egin zen. Hartara proposamen bat eramateko lehendabiziko bilera urte hasieran egin genuen.

Badira hutsik egiten ez duten hitzorduak, egitarauari egitura ematen diotenak. Zergatik errepikatzen dituzue?

Anita. Martxoaren 8ko kontzentrazioa, afaria, kafe solasaldia eta zinemara irteera dira urtero mantentzen ditugun jarduerak. Emakumearen Nazioarteko Egunean mugimendu feministarekin bat egiten dugu. Afarian, batz bestea, 80 lagun biltzen gara. Baina ez da soilik afari bat: Lorena Arangoak antzerki emanaldia eskaintzen digu musutruk afa-lostean, eta giro ederra sortzen da. Kafe solasaldia eta zinemara irteera urtero errepikatzen ditugu emakumezkoen artean interesa dagoelako. Gehiago esango nuke, taldearen sortzaile batzuek eskatu ziguten bi jarduerak mantentzeko oso gustura parte hartzen dutelako. Jakina, beraien eskaera kontuan hartzen dugu. **Horiek oinarri hartuta osatzen duzue egitaraua?**

Ai. Bai, oinarri horrekin hasten gara egitaraua eraikitzen eta, argi daukagu, lau jarduerak eginen ditugula. Baina beste hainbat ekintza eskaintzeko tokia dago. **Berrikuntzarako aukera ematen du?**

An. Bai. Saiatzen gara adin tar-te guztietarako jardueraren bat eskaintzen. Esate baterako, kafe solasaldia formatu bat besterik ez da, baina gai asko landu ditzakegu hitzaldi, tailer edo emanaldien bitartez.

Aurtengo berrikuntza autodefentsa feministako tailerra izan da. Zer moduz?

Ai. Bai, autodefentsa tailerra egiteko interesa zegoen aurtun, eta lortu dugu eskaintzea. Oso ongi egon zen. Lau ordu trinko izan ziren. Indarkeria eta erasotzaileen profilak detektatzeko moduz hitz egin ziguten. Alde praktikoa ere izan zuen eta defentsa pertsonalerako trikimai-

luak eta teknikak erakutsi zizkiguten.

Martxoaren 8ko bilkuran zer mezu zabaldu nahi duzue?

An. Aurtun mugimendu feministak aukeratu duen lema, hau da: *Gure bizitzekin negoziarrik ez! ¡Haceos cargo ya!* Eta, horrekin batera, salatzen ari gara lan prekarietatea eta emakumeok jasaten dugun soldata arrakala. Bizitarako funtsezkoa den zaintza sistema gure gain hartzen dugu, modu prekarioan eta inolako errekonozimendurik gabe egiten dugu. Politikaren aldaketa bat aldarrikatzen dugu, hots, edukiak zehaztuz plangintza egin eta aurrekontua bermatu.

Egitarauko kartelean liburu, kanta eta film bana aholkatu dituzue, zergatik?

Ai. Batez ere kultura feminista zabaltzeko. Kartelean gomendioak egitea horretarako modu on eta erraza zela iruditu zitzaigun. Irizpide izaten da, adibidez, egilea emakumezkoa izatea, edo feminismoarekin lotura duen gai bati buruz hitz egiteko aitzakia delako.

31. edizioa jardunaldiak. Zer oihartzun dute Irurtzunen eta inguruan?

An. Jardunaldiek, urteen poderioz, Irurtzongo bizitza soziokulturean bere tokia hartu dute. Ezaguna da martxoan hainbat jarduera egiten direla eta horietan parte hartzea garrantzitsua dela. Aurtun egin ditugun bi jardueren balorazio positiboa egiten dugu.

Zergatik behar dira jardunaldiak?

Ai. Tamalez, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna ez dugulako lortu oraindik. Jardunaldietan lekua dago ongi pasatzeko, ospatzeko, elkar partekatze gunea sortzeko... Baina lortu nahi ditugun eskubideak aldarrikatzea eta kontzientziazio lana egitea beste alde garrantzi-

"SAIATZEN GARA ADIN TARTE GUZTIETARAKO JARDUERAREN BAT ESKAINTZEN"



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehiu berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



tsu bat da. Zoritzarrez, oraindik bide luzea gelditzen zaigu egiteko.

Nori zuzenduta?

An. Saiatzan gara emakume adin tarte guztiendako jarduerak eskaintzen. Hainbat gauza eskaintzea kontuan hartzen dugu. Esaterako, joan den igandean kafe solasaldian hiru belaunalditako emakumezkoak geunden. Hori oso aberasgarria iruditzen zaigu, eta oso positiboa dela baloratzen dugu.

Hasierako eta gaur egungo antolaketa motibazioak berak dira?

Ai. Funtsean baietz uste dugu. Emakumezkoa izateagatik emakumezkoek zuten egoerarekiko kezka eta salaketa, horrek batzen zituen Irurtzungo talde feministak abiarazi zutenak. Baita gu ere gaur egun. 31 urtetan aurrerapausoak izan dira, baina ez nahi bezainbeste. Joan zen urtean, taldearen 30. urteurrena zela eta, jardunaldietan landutako gaien errepaso egin genuen eta jabetu ginen orduan lantzen ziren gai batzuek, tamalez, gaur egun agenda feministan jarraitzen dutela.

Taldeak urteak ditu. Belaunaldi aldaketa egon da?

An. Bai, joan zen urtean hasi zen emakumezko gazte talde bat, eta oso pozik gaude.

Nola lortzen da hori?

Ai. Noizbait norbait hurbiltzen da taldean parte hartzeko interesa duela esanez. Baina batzuetan ez da erraza. Beraz, emakumezkoak taldean parte hartzerantz animatu nahi ditugu. Horretarako, irurtzungoemakumetaldea@gmail.com posta elektronikoko helbidera idatzi dezatela.

Udalaz aparte, beste eragileren batekin elkarlanean aritzen zarete?

Hasieran esan dugun bezala, Kultur Kontseiluan parte hartzen dugu. Beraz, herriko beste taldeekin harremana daukagu. Joan zen urtetik Sakanako mugimendu feministarekin harremanetan gaude, baita Arakilgo emakumeekin eta Basaburua eta Imotz aldeko talde feministekin ere bai. Urtean zehar taldeak zerbait gehiago egiten du?

Gure urteko hitzordu garrantzitsuenak, dudarik gabe, Martxoaren 8a eta Azaroaren 25a dira. Joan zen urtean, Azaroaren 30eko greba feminista prestatu genuen beste taldeekin elkarlanean. Eta sare bat eraikitzen hasi ginen. Orain sare hori mantentzea eta zabaltzea da gure helburua. Horretaz aparte, gure inguruan (herrian, ibarrean) eraso baten aurrean salaketa egiten dugu.



Zaintza lanak denon ardura dela gogorarazten duen pankarta 2018ko manifestazioan. ARTXIBOA

Zaintza sistema guztiz aldatzeko aldarrikapena

Hori eta beste batzuk zabalduko ditu mugimendu feministak gaur. 'Gure bizitzekin negoziarik ez. Kargu egin zaitezte' leloa du deialdiak. Emakumezkoen kontrako indarkeriari aurre egiteko kultura eta erakunde aldaketa sakonak nahi dituzte

SAKANA

Mugimendu feministarendako gaurkoa "borroka eta salaketa eguna da". Esan dutenez, "kalera ateratzeko arrazoi ugari" dituzte. "Gure lan indarra esplotatzen duen sistema heteropatriarkal kapitalista bati egin behar diogu aurre etxean, enpleguan baita dohainik eta aitortu gabe egiten ditugun zaintza lanetan ere. Horrek zuzenean prekarrietatera eta etengabeko zapalkuntza egoeran bizitzera kondenatzen gaitu".

Nabarmendu dutenez, "emakume* langileok bizi dugun soldata arrakala (Hego Euskal Herrian urtean gizonezkoek baino 7.000 euro gutxiago 2020an) eta pentsio baxuenak jasotzea lana-

ren banaketa sexuala betikotzen duen sistemaren izebergaren punta baino ez dira". Mugimendutik nabarmendu dutenez, "feminizatutako lanetan harrapatuta gaude, lan baldintza prekarioekin, eta inolako errekonozimendurik eta aitortzarik gabeko zaintza lanak egiten ditugu".

Zaintza

Azaroaren 30ean greba feminista orokorra egin zen zaintza eskubide kolektiboaren alde eta zaintza sistema publiko eta komunitarioa exijitzeko. Haren ondoren iritsi da Martxoaren 8a. "Ozen oihukatu genuen etxeko langileen, egoitzetako langileen, etxeko languntza zerbitzua-

ren eta abarren egoera salatzeko. Eta ozen oihukatzen jarraitzen dugu emakumeon gain dauden lan profesionalizatuen, ordaindu gabeko eta zaintza lanen berantolaketa aldarrikatzeko".

Gaztigatu dutenez, "egungo zaintza sistema guztiz pribatizatuta egoteaz aparte, guztiz familiarista da. Hau da, familietan eta, beraz, emakumeengan erortzen da lan hori. Batez ere, emakume migratzaileengan, XXI. mendeko esplotazio egoera lagarrietakoa bizi dutenengan. Horietako askok etxeko langile egoiliar gisa 24 orduz, asteko zazpi egunetan lanean dihardute". Mugimendu feministako kideendako "hori onartezina da!"

Gaztigatu dutenez, "zaintza sistema esplotazioan oinarritzen da". Zaintzaren aldeko itun batek izan beharko lituzkeen edukietako batzuk lirateke: zaintza zerbitzuen publikazioa eta pribatizazioaren kontrakoa izatea, Atzerriartasun Legea deuseztatzea, aurrekontu egokia eta plangintza zehatza izatea. Hego Euskal Herrian halakorik ez dagoela nabarmendu dute. Zaintzatik eta bizitzeko oinarritzko beste esparruetatik (elikadura, etxebizitza, osasuna...) "logika merkantilista" ateratzea aldarrikatu dute.

Feministek "Palestinako genozidio eta sarraskia" salatu dituzte. "Badakigu emakumeen gorputzak direla lehen konkista lurraldeak", horregatik, palestinarrei elkartasuna adierazi diete. Migrazio prozesua egin eta Atzerriartasun Legearen ondorioz "hainbat indarkeriaren aurrean erabateko zaurgarritasun egoeran gelditzen diren" emakumezkoak ere gogoan izan dituzte. Izan ere, lanean indarkeria pairatzeaz aparte, inguruan indarkeria matxista bizi dute, baita arrazakeria ere.

Azkenik, feministek gogoan dituzte "indarkeria matxistaren ondorioz eraildako, bortxatutako, jazarritako eta etxetik kanporatutako emakume* eta neska guztiak. Emakumeen* kontrako indarkeria sistemikoak genero eta botere desberdintasunak betikotzen ditu egitura sozial, politiko eta ekonomikoaren bidez". Horri guztiari "aurre egiteko, kultura eta erakunde aldaketa sakonak behar ditugu. Aski da, justizia feminista orain!" aldarrikatu dute. Eta mugimendu feministak antolatu dituen mobilizazioetan parte hartzerantz deitu dute.

Pentsiodunek "guztiondako zaintza duinak" aldarrikatu dituzte

Erakundeek "zaintza eztabaidari modu parte hartzailean heltzeko" garaia dela azpimarratu dute

SAKANA

Martxoaren 8an, pentsio duinak aldarrikatzearekin batera, "guztiondako zaintza duinak" aldarrikatu dituzte pentsiodunen mugimenduak. Haien iritziz, etxeko zainketa "ezin da dirulaguntza

batzuk ematera mugatu, familiariko emakume batek mendeko pertsona zain dezan, edo migratutako emakume bat ordaintzeko. Hori ez da zaintza duina". Horregatik, "etxeko zainketak profesionalizatuta, integratu eta

kudeaketa publikokoa" izan behar duela diote. Sistema berria aldarrikatu dute, "zainduaren premiei erantzuten diena, behar duten pertsona guztiendako eskuragarria dena, edozein dela bere ekonomia gaitasuna".

Etxean zaindu ezin denean, "zaintzak inguruko udal tutoretzapeko etxe edo komunitate etxetan izan behar dute". Egoitza azken aukera izan beharko luke. Egoitza txikiagoak eskatu dituzte, "inguruan kokatuta, eta kalitatezko zaintzarekin".



Martxoaren 8ko manifestazioa. ARTXIBOA



ASTEKOA

OIHANE ANDUEZA IMIRIZALDU

Ene emeok, hitzatik has

Emea sentitzen naiz, eta ene gorputza sentimendu horrekin bat dator. Titiak, titiburuak, areolak dauzkat; alua, klitoris, bagina, umetokia, obuluak, obulategiak, Falopioren tronpak...

Geldi! Zer idatzi dut? Falopioren? Noren, Falopioren?

Falopioren tronpak ez dira, inondik ere! Nireak dira, gureak! Ados nago berak anatomikoki ikusi edota aztertu zituela eta hortxe bere meritua, baina ene eta emakumeon gorputz atal bat beste norbaiten, gainera gizon baten izena jartzearrekin ez nator bat.

Amerikari Colonen herria deitzea bezala litzateke.

Gainera, kasualitatez ala ez, Falopiok, falo hitza du... *Ejem!* Nire ezezkoo areagotzen naiz. Ezezkoo jarraitzen dut. Ezezkoari eusten diot.

Kritika sortzailea izan behar den iritzikoa naiz, beraz, jolasari ekingo diot Falopioren tronpei beste izen bat bilatu asmoz, hala nola eme tronpak, obulu bideak, obulu tutuak... Azken hori oso musikala eta afrikar kutsuduna iruditu zaidanez, horrekin geratuko naiz. Obulu tutuak, bai.

Emakumeokin zerikusia duten eta esanahiari berrikusi bat eman nahiko nizkiokeen beste hitz batzuk ere badira, umetokia, adibidez. Uteroa erreproduktzioarekin guztiz lotuta dago hitz honetan eta gaur egun denok dakigu beste funtzio batzuk ere badituela, hona ba, izenarekin jolasteko ene iradokizunak: Gozalekua, hutsunemea, odolbide, urbitarte edota emetokia. Azken hori, orain artekoaren antzekoa denez, barnatzen errazena litzatekeelakoan nago. Gainera, nolabaiteko boteretzea erakusten duela uste dut.

Amaitzeko, alu hitzaren beste esaera negatibo, desbalorizatzailea, denok ezagutzen dugu, eta horrek triste jartzen nau. Beraz, hortxe ene eme hiztegirako azken proposamena, aluari ululili deitzea. Hau ere musika eta gozamena, natura eta kolorearekin lotuta.

Halaxe ba, hementxe emakumeon indartze eta boteretzerako bide honetarako nire hare pikorra: obulu tutuak, emetokia eta ululili.

HARA ZER DIEN

Kannabisaren inguruan sortutako mitoak

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUA

Gaurkoan, kannabisaren edo kalamuaren inguruan hausnarketa piztu nahi dugu, eta horrekin batera, gizartearen eztabaida sustatu.

Kalamua legez kanpoko substantzia bada ere, Nafarroan gehien kontsumitzen den substantzia da, batez ere 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean. Herri kulturak eta, batzuetan, komunikabideek, konnotazio positiboz betetako substantzia bihurtzen dute kalamua. Haien esanetan, produktu naturala da, eta, beraz, ez du kalterik egiten, ez du dependenzia sortzen, jaiez eta lagunez gehiago gozatzeko aukera ematen du, tabakoa edo alkohola kalamua baino kaltegarriagoak dira, ez da droga bat...

Ondorioz, iritzi publikotik harago doan informazioa, batez ere gazteei dagokiena,

nahastuta agertzen da eta ez ditu kontsumoarekin lotutako arriskuak nabarmentzen. Dударik gabe, arazorik handienetako bat izan da beti landare honen inguruan izan den desinformazioa.

Askotan entzun izan dugu "kalamua produktu naturala da, beraz ez da arriskutsua". Ez nahastu! Kalamua landare batetik ateratzeak ez du esan nahi kalteak eragiteko gai ez denik, berez kaltegarria izan daiteke eta.

Oso barneratuta dugun beste ideia bat: "Kalamuak efektu terapeutikoak ditu, gaixotasunak senda ditzake". Kalamu medizinala ez da edonorentzat, eta medikuak zorrotz kontrolatuta kontsumitzen da. Nolanahi ere, "sendatzen ez duten" botikak sintomak arintzeko baino ez dira.

Badago beste aurreiritzi bat: "kalamuak ez du eraginik gazteen garunean". Kalamuaren kontsumoak garunaren garapena aldatzen du eta nahasteak eragiten ditu animoan, memorian, arretan eta ikasteko gaitasunean. Gainera, antsietatea eragin

dezake, bereziki nahasteak izateko joera duten pertsonengan, eta bolada txarra pasatzen ari diren pertsonengan.

Askotan entzuten dugu hurrengo mitoa ere: "Kalamua nahi dudanean utzi dezaket; ez du dependenziaz sortzen". Guk, aldiz, ikusten duguna da pertsona batzuek zailtasunak dituztela kontsumo hori uzteko. Are gehiago, kontsumoa 18 urte bete baino lehen hasten bada. Ikerketek diote seitik batek adikzioa izango duela. Hau da, gaizki ez egoteko kontsumitu beharra daukagunean.

Eta azken mito honetan dagoen errealitate krudela; ondo egoteko beharrea, gaizki ez egoteko kontsumitzen dugunean. Hau da, ez dugu plazera bilatzen, gaizki egote hori baretzea baizik.

Horregatik guztiagatik diogu kontsumo guztiek arriskuak dituztela eta hala eta guztiz ere, kontsumitza erabaki baldin baduzu, zenbat eta beranduago hasi eta zenbat eta gutxiago kontsumitu, orduan eta hobeto.

GUTUNA

Euskarazko D eredia Sakanan

INIGO ORELLA ALTZUETA

ANDRA MARI IKASTOLAKO ZUZENDARI
PEDAGOGIKOA

Urtarrilaren hondarrean **GUAI-XEN** kezka irakurri genuen "D eredia %80an, ez aurrera ez atzera", nabarmenduta: "Euskarazko eredia azken hiru urteetan matrikularen 2,3 puntu galdu ditu" eta artikularen hasie-

ra: "Ibarrean gaztelania da hizkuntza hegemonikoa".

Kezkagarria da eragile desberdinak azkenaldi honetan partekatzen ari diren mezuak: euskararen erabilera geldirik edo atzeraldian dago gure inguruan, pantailen erabilera eragin negatiboa izaten ari da haur eta gazteen hizkuntza ohituretan, D ereduaren matrikulazioak ez du aurrera egiten ez Nafarroan ez eta Sakanan ere, etxeko transmisioa eteten ari da, gero eta ikasle gehiagok zailta-

sunatzen euskaraz zuzentasunez aritzeko...

Iaz Nafarroa Oinezen harira Sakanako Mankomunitatearekin batera, Andra Mari Ikastolan "Eman arnasa gureari" jardunaldia antolatu genuen euskararen arnaguneen bilakaera eta Nafarroako D ereduaren erronken inguruan hausnartzeko. Jardunaldiko adierazpenean euskararen ofizialtasuna eta bere normalizazioa hizkuntza politikak auzartak eta integralak galdegiteaz gain, Nafarroan bizi diren IKASLE

GUZTIEK euskarazko murgiltze eredu ikasteko eta euskararen gutxieneko ezagutza bermatzeko dituzten eskubideak aldarrikatu genituen. Horretarako funtsezkoa da D ereduaren sustapen aktiboa eta babes instituzionala.

Egoera hau iraultzeko, hezkuntzak bakarrik ezin du. Bistan da akordio sozial eta politikoa zabala behar dugula Nafarroan euskara eta euskarazko irakaskuntzaren alde. Era berean, ezinbestekoa da D ereduaren ingurungabiltzan eragile desberdinen arteko ados-

tasun zabala, elkarlana eta alianztak sustatzea. Interes korporatibistak alde batera utzita, herri ikuspegitik, indarrak batu beharra dago Nafarroan D ereduak %30eko langa gaintzeko eta askoz urrunago heltzeko; Sakanan jendarte kohesioa erraztuko duen murgiltze eredu inklusibo bakarra izateko, eta euskarazko irakaskuntzaren benetako oztipoak identifikatu eta gaintzeko konpromiso kolektiboa.

Ikastolok elkarlanerako prest gaude, bazatuz?

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Maite Iparragirre Astiz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

GUTUNA

Eman diezaiogun euskarari kalea!SUGOI ETXARRI ZABALETA
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Aurrekoan, lan egiten dudun institutuan ikasle batek botatzen zidan: "hamar pertsona bagaude eta batek euskaraz ez badaki, errespetuzkoena da gazteleraz hitz egitea". Esaldi horren eta bota duen pertsonaren atzean, hamaika bizipen daude, eta horietan barna nagusitu den logika bat antzeman daiteke, hau da, mundua gobernatzen dutenen logika indibidualista eta sasi bakezalea.

Euskal Herrian (ere) agintzen duen logika horrek berak ezkutatzen ditu pertsonen artean dauden botere harremanak; klaseak, sexu-generoak, azal koloreak, hizkuntzak... eragindakoak. Horrela, denok aske eta botere berdinarik bagina bezala pentsatzera eraman gaituzte, gure bizipen eta ekintzen kausa zein ondorio sistemikoak ikusezin bihurtuz. *Nik euskaraz edo gazteleraz egin, zer axola du? Aske naiz nahi dudana egiteko! Gainera, ez dadila inor gaizki sentitu, ez dezagun inor gaizki sentiarazi...* Pentsamolde honek, bistan da, itxurazko bakea ezartzen du, noski, zapaltzailearen mesedetan eta zapalduaren kaltetan.

Azken urtetan, ikasleek euskara eskolarekin eta arauarekin lotzen duten irudipena dut, eta erdara, kontrara, dibertsioarekin eta askatasunarekin. Urte luzetako borrokaren ondorioz euskara neurri (txiki) batean instituzionalizatzea lortu dugun bitartean, diglosia egoera bortitzean jarraitzen dugu, baina gutxi hitz egiten da horri buruz, eskoletan, etxeetan zein kalean. Errealitate gordin hori ezkutuan geratu da.

Horren aurrean, astindu berri bat behar du gure hizkuntzak eta komunitateak. Apirilaren 22tik 28ra izanen dugun Euskaldunon Harrotze Asteak horretarako aukera eskainiko digu, kaleak hartuz, elkarrekin ahalduntzeko eta bizi ditugun zapalkuntzen arduradunak seinalatzeko. Korrika bezalaxe, kolektiboki harrotzeko ariketa izanen da, parte hartu nahi duten euskaltzale guztiei irekia.

Gure institutuko ikasleek, beste guztiok bezala, egoeraren kontziente izateko eta askatzailea den komunitate baten parte aktibo izateko eskubidea dutelako. Eman diezaiogun euskarari kalea!



Sakanako Mankomunitateko langileak abenduko trebakuntza saioan. UTZITAKOA

Mank-ek informazio eta komunikazio barneratzailea du

Mank-ek bere komunikazioan hizkuntza inklusiboa eta ez sexista erabiltzeko ordenantza onartu zuen

SAKANA

Sakanako Mankomunitatearen komunikazioan hizkuntza inklusiboa eta ez sexista erabiltzeko ordenantza martxoaren 5az geroztik indarrean da. Ibarreko erakundeak emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako politika mankomunitatean aurrera egiteko, horiek sendotzeko eta jasangarritasunetik bideratzeko erronka du, eta, kasu honetan, informazioaren eta komunikazioaren bidez.

Mank-eko langile batzuek ordenantzaren trebakuntza saioa egin zuten abenduan. Apirilean beste bat egingen da gainontzeko langile eta udal ordezkariendako. Helburua da udalek pareko ordenantza bat izatea. Ordenantzaren jarraipen sistema martxan jarriko dute. Horrek aukera emanen du diskriminazio bat antzeman bezain pronto, horren berri emateko.

Zergatia

Mank-ek Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako I. Plana indarrean du. Baina, azken urteotan informazioaren eta komunikazioaren teknologietan gertatu diren aurrerapen tekniko eta sozialek ordenantza egitera bideratu dute. Izan ere, "komunikazioak munduaren ikuspegi bat proposatzen du, mezuak jasotzen dituzten pertsonengan subjektibotasun jakin bat mugiarazten du, eta munduaren irudikapen hori errealista eta egiazkotzat onartzen dute pertsona horiek", azaldu du

Oihana Gallo San Romanek, Mank-eko berdintasun teknikariak. Gallok gogorarazi duenez, "gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harremanak oraindik asimetrikoak dira, eta horiek informazio eta komunikazio prozesuan islatzen eta finkatzen dira". Gaineratu duenez, "hizkuntzaren erabilera jakin batzuek bulkatzen dute harreman horiek denboran mantentzea".

Galloren hitzetan, "emakumezko haur, nerabe eta helduengana gorrotzeko eta indarkeriazko diskurtsoa nagusitzen da, batez ere baliabide teknologikoen bidez. Eta arreta espezifiko ematen zaio matxismoaren, LGTBI+fobiaren eta arrazakeriaren arteko intersekzioari, emakumeak uzten baititu egoera bereziki zaugarrian eta indarkeria jasateko arrisku handian". Hori guztia kontuan hartuta, Mank-ek "informazioaren eta komunikazioaren produkzioaren eta kudeaketan beste diskriminazio mota batzuekin batera agertzen diren sexismo adierazpenak saihesteko formulak" bilatuko ditu, eta "komunikazio inklusiboa eta ez diskriminatzailea sustatuko du, Sakanako Mankomunitateak erabiltzen dituen kanal guztietan", zehaztu du Gallok.

Tratu berdintasunerako eta diskriminazio ezarako eskubidea jaso da. Beraz, komunikazio sistema inklusibo eta ez sexista erabiliko du dokumentazio administratiboan eta inprimaketan, errespetu dadin pertsonen aniztasuna.

Hondakin bilketarako kamioi berria erosi du Mank-ek

Sakanako Mankomunitateak gai organikoak biltzeko erabiliko du. Gainera, 374 edukiontzi berri erosi ditu

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak Hondakin Zerbitzurako kamioi berria erosi du 168.070 eurotan, Nafarroako Gobernuaren Hondakin Funtzaren dirulaguntza 117.650 eurokoa izan da. Kamioi berriak errefusa jasotzen zuen ibilgailu zaharkitu bat ordezkatu du. Mank-ek kamioi bana erosi zuen 2019 eta 2021 urteen artean, azken horretan bigarren eskukoa. 2022ko akaberan, berriz, kamioi berri bat eta bigarren eskuko bat erosteko deialdia egin zuen. Azken hori joan zen urtean jaso zuen. Baina kamioi berria orain jaso du Mank-ek, enpresen emate epeak luzeak direnez. Gauza bera gertatuko da 2023an eskatutako bi kamioiekin.

Mank-ek 374 edukiontzi berri erosi ditu 51.523,74 eurotan; 1.000 litroko 108na edukiontzi hori eta urdin. Irurtzunen eta Altsasun



Mank-en kamioi berria. UTZITAKOA

jarriko dituzte, zaharkituta edota hautsitakoak ordezkatzeko. Beste 158 edukiontziak 240 litroko edukiera dute, 79na urdin eta hori dira, eta atez ateko bilketa zerbitzua duten herrietako establizimendu eta enpresetan erabiltzeko dira.

23.korrika

HARRO FERRI

MARTXOAREN 14EAN 14:00ETATIK AURRERA

KORRIKAREN HASIERA EKITALDIA IRUNDIK ZUZENEAN!

WWW.GUAIXE.EUS BELEIXE IRRATIAN

GUAIXE FUNDAZIOAREN KILOMETROAN LEKUKOA ERAMAN NAHI DUZU?

PARTE HARTU ZOZKETAN



Gazteak UEMAK aurreko urtean antolatutako udalekuan. UTZITAKOA

UEMAk gazteendako udalekuak antolatu ditu

Udalerrri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzea, kontzientziatzea eta saretzea da udalekuen helburua. Izena emateko epea hilabete akabera arte egonen da zabalik

ARRUAZU / ARBIZU / ETXARRI ARANATZ
Gazteendako *Salto!* udalekuak antolatu ditu aurten ere Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAK. Bertako kide dira Arruazu, Arbizu eta Etxarri Aranatz. Udaleku ibiltariak izanen dira, Arantza eta Elizondo artean, Doneztebe eta Oronoz-Mugairtik pasata; herri batetik bestera oinez mugituko dira gazteak eta herri bakoitzean bi gau pasako dituzte. Bi txanda izanen dira: garagarriaren 24tik garilaren 2ra eta garilaren 4tik 12ra. Txanda bakoitzean 60 gazte parte har dezakete, betiere 2006 eta 2009 urteen artean jaio badira. 150 euro balio ditu matrikulak. Izena emateko epea hilaren 31n

despedituko da. Horretarako lau bide daude: uema.eus webgunea, 943 816 699 telefono zenbakia, *administrazioa@uema.eus* e-posta helbidea eta 608 668 155 telefono zenbakira Whatsapp edo Telegram mezua bidalita.

Arrazoa

Udaleku horiek antolatuta, UEMAK "euskaraz bizi diren gazteek inertziatik kontzientziarako saltoa ematea eta horrekin efektu biderkatzailea sortzea" du helburu. Gainera, "aisialdiarekin eta euskal kulturarekin lotutako egitarau erakargarriarekin, gazteak sentsibilizatzea eta saretzea" lortu nahi du Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak.

Gazteendako aisialdi eskaintza UEMAKen lan ildo nagusietako baten barruan dago: euskararen inguruan herritarrak kontzientziatze eta sentsibilizatze ekimenak antolatzea. Horren baitan, euskararen arnaguneei eta udalerrri euskalduneei buruzko Hedatu hezkuntza proiektua abian du, eta ikastetxeetan ere ari dira lanean UEMAKo teknikariak, Haur Hezkuntzako, LHko, DBHko eta Batxilergoko ikasle, irakasle eta gurasoekin. Udalerrri euskaldunak eta arnaguneeak giltzarriak direla nabarmentzea da proiektuaren helburua, gazteei euskararen normalizazio prozesuan duten garrantzia ikusarazteaz aparte.



Sarekadan atxilotutako batzuk polizien artean. @POLICIA

Indar Gorriren kontrako sarekadan sei atxilotu

Atxilotuetako hiru altsasuarrak dira, bi etxarriarrak eta bakaikuar bat. Hiru herrietan bilkurak egin ziren atzo

SAKANA

Espainiako Polizia Nazionalak gutxienez Indar Gorriko 40 kide atxilotu zituen gutxienez atzo. Osasuna futbol taldeko zale atxilotuen artean dozena erdi sakanadar daude. Aurreneko atxilotetak Etxarri Aranatz egin zituzten 06:00etan. Altsasun, berriz, 06:30ean hasi ziren atxilotzen. Azkenik, Bakaikuko atxiloteketa 07:00etan egin zuten poliziek. Atxilotuen gertukoek jakinarazi zuten, atxilotutakoak arratsaldeko lehen orduan auzitegian zeuden. Haiekin batera abokatuak zeuden. Gertukoek eta abokatuak ustez arratsalde edo gau partean pasako ziren atxilotutakoak epailearen aurretik. Horiek ziren erredakzioa ixterakoan genituen datuak. Hiru herritan atxilotuen askatasuna exijitzeko kontzentrazioak deitu zituzten atzo.

Indar Gorriko kideen kontrako sarekadarekin batera, beste 58

atxiloteketa zeuden Sevillan eta Madrilan. Atxiloteketa guztiak "kiroleko indarkeriarekin lotutako taldeen kontrako polizia makrodispositibo" baten baitan izan zirela jakinarazi zuen Poliziak. Sevillan Betis eta Osasuna taldeen arteko partida aurreko istiluengatik oraindik irekita dagoen polizia operazio baten barruan izan omen dira atxilotetak. Lastailaren 29an izan zen. Berri agentziek zabaldu dutenaren arabera, futbol zelaia inguruan "patruilatzen ari ziren agenteak ohartu ziren 'ultra' itxura zuen talde bat zegoela, antza, Osasunarenak. Betisen ustezko zale erradikalak ere ikusi zituzten handik gertu". Gaineratu dutenez, "Poliziak minutu gutxitan desegin zuen liskarra", eta, horren ondoren, "agenteek egurrezko makilak, metalezko barrak, suziri bat eta futbolin barrak atzeman zituzten".

Garziandia anaien meza Aralarko santutegian

Alfonso, kaperau berria, eta Mikel, Palentziako gotzaina, izanen dira elizkizunean

UHARTE ARAKIL

Mikel Garziandia Goñi Aralarko santutegiko kaperau zela, mendi gaineko elizan azken meza ilbeltzaren 14an eman zuen. Egun hartan botatako elurteak traba handiak sortu zituen santutegi-

rako bidean eta hainbat fededun Garziandia agurtu ezinik gelditu ziren. Palentziako gotzaina Nafarroan izanen da igandean, eta hori baliatuta santutegian meza emanen du, aurrekora iritsi ez zirenak agurtzeko. Mar-

txoaren 10ean, igandearekin, 12:30ean hasiko da elizkizuna.

Apezpikuak aldamenen bere anaia Alfonso izanen du, Mikelen lekukoa hartu duena santutegiko kaperau gisa. Otsailaren 25eko elizkizunean hartu zuen ardura Mikel Larranbeberere Pastoral Bikario Nagusiaren eskutik. Alfonsoren izendapena Nafarroako aurreko artzapezpikuak, Francisco Perez Gonzalezek, egin zuen. Alfonso santutegiaz aparte, ibarreko zenbait parrokiez arduratzen da.



Alfonsok Larranbebereren eskutik jaso zuen aingeruaren irudia. @IGLESIA NAVARRA

"Seme-alaben laguna etxeratzea bezala da"

ANA BALDA SANJUAN GIZARTE ZERBITZUETAKO GIZARTE LANGILEA
Ama bakarreko familien egoera zaurgarria ikusita, behin-behineko laguntza eman daitekeela jakinarazteko hitzaldia antolatu du Etxarriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Luza Gonzalez de Pedroso Saez hezitzailea eta Ana Balda Sanjuan Etxarri Aranzat aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Haurtzarora eta Familia programaz arduratzen dira. Premia ikusita, *Familia harrera Sakanan* informazio hitzaldia antolatu dute, Etxarriko kultur etxean, martxoaren 14ko 17:30ean. Gobernuko Familia saileko ordezkari bat, Sakanako bi harrera familia eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako kide bat ariko dira hizlari.

Zer da harrera familia?

Labur esanda, bere familiakoa ez den haur bat hartzen duena da. Haur horren ezaugarria da bere familia biologikoak, edo erreferentziako familiak, ezin diola kasurik egin. Haur horrek badu familia. Baina edozein gauzarengatik, bere gurasoak ez daude, edo gurasoak ez daude ongi momentu jakin batean, edo beti, edo arazoren bat izan dezakete. Tarte horretan haur horiei bizitza normalizatu bat emateko, beste familia batek hartzen ditu. Haur horiek hartzen dituen da harrera familia.

Harrera familia motak daude?

Familia motak baino gehiago harrera mota desberdinak daude. Hori hobeki azalduko dute hitzaldian, nik labur azalduko dut.



Luza Gonzalez de Pedroso Saez eta Ana Balda Sanjuan. UTZITAKOIA

Larrialdiko familiek bat-batean inongo familia erreferenterik gabe gelditu diren haurrak hartzen dituzte. Haur hori nora doa? Bada, momentu horretan haurra hartzeko prest dagoen familiara. Behin-behineko harrera ere badago. Kasu horretan ez dakizu guraso horiek noiz egonen diren prest haurra berriro hartzeko. Badago asteburuko harrera. Nahiz eta haurra familia batean bizi, asteburuetan haur hori hartzen duten familiak daude. Esaterako, nerabeak. Beharbada bere familia biologikoak balio etiko edo

arazo batzuk ditu. Halakoetan, beste familia batekin asteburu pasa joaten da; beste balio batzuk, bizitzeko beste modu bat, beharbada, bizimodu osasuntsuagoak ezagutzeko. Betiko harrera ere badago, adopzioaren oso antzekoa dena. Azkenik, espezializatutako harrera dago. Horretarako eskakizun batzuk daude. Hartzen diren haurrak edo nerabeak jarrerara edo osasun arazoak dituzte. Harrerak daukan berezitasuna da familia biologikoarekin ez dela harremana moztzen; bisitak sortzen dira.

Beti da hobea haur horiek familia batekin egotea gobernuaren erakunde batean baino?

Dudarik ez izan. Familia bateko giroa beti da askoz ere atsegina, osasuntsuagoa eta aberasgarriagoa ume batendako.

Guztiak aurkeztuko dituzue?

Nafarroako Gobernuako teknika-riak datoz eta eredu denak aipatuko dizkigutela uste dut. Eskualdeko harrera familia pare bat ere animatu dira beraien esperientzia kontatzera; hori oso aberasgarria iruditzen zaigu. Azkenean, errealitatea zein den azalduko dute. Ez da oso luzea izanen. Informazioa beraiek ekarriko dute batez ere.

Zergatik antolatu duzue harrera familiei buruzko hitzaldia?

Nafarroan badaude harrera familiak. Baina haietako asko Iruñerrian daude. Sakanan ere baditugu. Baina gure esperientziagatik behar batzuk ikusi ditugu, batez ere amak guraso bakarra diren familietan. Amak eta bat, bi edo hiru ume elkarrekin bizi dira. Ama hori ongi ez dagoenean, asteburuetan lanean dagoenean... Halakoetan, haur horiek erreferentziarik gabe gelditzen dira. Esaterako, izan genuen kasu bat. Ama batek ebakuntza bat izan zuen. Inguruan ez zuten familiarik, eta hiru ume nora joan ez zekitela gelditu ziren. Azkenean, zentro batera joan behar izan zuten. Guk esaten genuen: ama ospitalean egon zen bost egun haietan, Sakanako edozein herritan egon daiteke familiararen bat haur bat edo bi har ditzakenak. Horrela, umeek ikastetxean segi zezaketen, eta normal segitu beraien bizitza. Harrera mota guztiak ezagutarazi nahi ditugu. Baina azken hori ere ezagutarazi nahi dugu guk: oso-oso behin-behinekoa eta

oso bat-batekoa, eta oso motzak izan daitezkeenak. Baina, aldi berean, oso lagungarriak direnak. **Beraz, helburua da haurrek beraien bizitza herrian bertan egiten jarraitzea?**

Hori da. Zure seme-alabaren lagun bat etxera eramatea bezala da. Batez ere, pentsatuz hemen familia ez duten pertsonengan. Asko dira ama bakarrik duten familiak, osaba-izebarik, aitona-amonarik ez dituztenak. Tarte pixka bat paper hori egitea da. Azpimarratu nahi dugu 14koa informazio bilera dela, joateak ez dio inori inongo konpromisorik sortuko. Informazio bilera da, besterik gabe.

Edozein familiak egin dezake harrera?

Bai, printzipioz ez da ezaugarri berezirik behar. Nafarroako Gobernuak balorazio elkarrizketak eta egiten dituzte, baina, berez, bai, edozein anima daiteke, umeak izan edo ez izan.

Harrera familiek norbaiten laguntza jasotzen dute?

Nafarroako Gobernuak jarraitpena egiten du. Babesa dute. Beharbada, diru babesa ere badute. Alde horretatik, jarraitpena dago, ez zaude bakarrik.

Zer onura ditu harrera familia izateak?

Batez ere emozionala da. Zureak izan daitezkeen haur batzuk ongi daudela ikustea, bere familia biologikoak eman ezin diena zuk ematen diezula. Eta haur horiek ongi daudela, edo hobeki sentiarazi ahal dituzula.

"EZAGUTARAZI NAHI DUGU OSO-OSO BEHIN-BEHINEKOA ETA OSO BAT-BATEKOA DEN HARRERA"



Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arraza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekolizearen jatorrizko prezioan.



errigora.eus





Ikastolen Elkarteko Arikala taldeko Aritz Bereziartua Arruabarrena Altsasun egon zen. ARTXIBOA

"Emaitzak ikusita, badirudi eragin daitekeela"

ARITZ BEREZIARTUA ARRUABARRENA IKASTOLEN ELKARTEA
Euskaltzaindia, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea eta Ikastolen Elkartea ari dira Arikala egitasmoa garatzen

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU
Arikalatarren lehen topaketa hartu zuen Altsasuk astelehenean eta asteartean. Arikala ikerketa-ekintzaren barruan, hainbat jolas dinamika egin zituzten Euskal Herriko hamar ikastolatatik etorritako ikasleek. Eta, haiekin batera, Iñigo Aritza ikastolakoak. Arikala Mintzola egitasmoaren barruan dago. Eta haren ardura Euskaltzaindiak

hartu zuen 2022ko ilbeltzean. Mintzola egitasmoaren ardura hartu zuenetik, hizkuntzaren akademia euskarazko ahozko jardunaren ikerketan, dibulgazioan eta sustapenean dihardu. Eguneroko hizkera deitzen ditugun elkarrizketak eta jardunak, eremu ez formalekoak gehienak, gure ahozko jardunaren zatirik handiena hartzen du. Mintzola egitasmoaren helburu nagusia

hizkera hori aztertzea da, baita adierazkortasuna lantzeko tresnak garatzea ere. Arikalak helburu horiei eusten die.

Zer da arikalatarra?

Arikala egitasmoan parte hartzen duena. Proiektuaren bigarren ikasturtea da hau. Ikastolatatik egin zen eskaera bati erantzuteko egin ditugu topaketak, arikalatarren komunitatea eraikitzeko.

Eta Arikala?

Arikalatarren topaketa Arikala egitasmo horren barruan kokatzen da. Euskaltzaindiaren Mintzola egitasmoak Mondragon Unibertsitateak eta Ikastolen Elkartek sustatzen duten ikerketa bat da. Bere helburua da ikasleen artean euskarazko lagunarteko hizkera sustatzea. Kezka handi bat dago: Euskal Herrian ikasleen artean euskararen erabileran apaltze nabarmen bat nabaritu delako. Eta horri erantzun asmoz, Arikala proiektua garatu da. Gu saiatzen ari gara, bai gela barruan eta bai aisialdi esparruan, ekintza ludikoen bitartez ikasleei hainbat hizkuntza baliabideak eskaintzen. Horiekin goza dezatela. Ondoren ikertzen ari gara jolas garaietan edo lagunarteko momentu horietan erabiltzen ote dituzten.

Ikasleek euskara ikasketa hizkuntzarekin identifika ez dezaten?

Ikus dezatela badagoela hizketa informal bat, badagoela erakargarria izan daitekeen molde bat, eta gaurkotua dena. Gure helburua hori da. Pixka bat hizketa informal horren hizkuntza baliabide horiek ematea. Bereziki esapide eta esamoldeetan zentratu gara. Iruditzen zaigulako horiek direla gehien erabiltzen direnak. Horiek erakargarri sentitzea, gero mihian dantzan erabiltzeko.

Beraien adierazkortasuna aberastea.

Hori da. Ikus dezatela euskaraz ere badaudela gaztelaniaz edo frantsesez esaten dituzten esamolde horiek. Egia da errealitate soziolinguistikoko asko, tamalez, aski erdaldunak direla; ikastola askok oso ingurune erdaldunetan kokatuta daude. Ikasleek ikastolatatik kanpo bizi duten denboraren ehuneko handi bat erdaraz bizi dute. Ez dute euskaraz hizketatzeko aukerarik. Baina guk erakutsi nahi diegu badagoela erakargarri izan daitekeen euskara bat. Eta horretan gabilza, hori ikertzen.

Topaketan ardatza jolasa izan da. Ikastetxeetan egitasmoa jolasaren bidez lantzen duzue?

Bai. Gelek izaera formal hori izan dute beti. Saiatu gara haiek pixka bat informalekoak egiten. Normalean erabiltzen diren metodologiak ludikoago egin ditugu, jolasari leku gehiago emateko. Gela barruko jarduna ildo horretan kokatu dugu. Aisia esparruan hainbat jolas eta joko egin

dituzte, tokian tokiko jolas eta jokoetatik abiatuta eta aldaera batzuk sartuta. Horietan oinarritu gara, eta jolasak amu gisa baliatu ditugu, ikasleek hizkuntza baliabide horiek erabiltzeko. **Ikastola guztiak daude egitasmoan?** 114 ikastolatatik hamar ikastola daude buru-belarri proiektu honetan. Aurtengoa bigarren ikasturtea da. Hamarrotan pixka bat ikusten, ikertzen; ez dakigu zer aterako den, ea eraginik izango duen edo ez duen. Hori neurtzen ari gara. Lehenengo urteko emaitzak ikusita, badirudi eragin daitekeela, baina oraindik gelditzen zaigu. Aurtengo emaitzak oraindik aztertzeko ditugu. Gaur-gaurkoz oraindik geletan lantzen ari dira, eta hurrengo urtean ikusiko dugu zer ematen duen. Baina badirudi eragin daitekeela.

Ikastola parte hartzaileen artean sakandarririk bada?

Lurraldeko bina ikastola daude: Arabako La Pueblako Assa eta Laudio; Bizkaiko Getxoko San Nikolas eta Bilboko Abusukoa; Gipuzkoako Irura eta Oiartzungo Haurtzaro; Iparraldeko Angeluko Kimuak eta Hendaiako Gure ikastola eta Nafarroako Lizarrakoa eta Iruñeko Jaso. Guztira 450 bat haur. Topaketa Altsasun egin dugu geografikoki Euskal Herriko erdigunean dagoelako, eta ertz ezberdinetatik iristeko denbora antzekoa delako. Topaketak Altsasun egin behar genituen, Iñigo Aritza ikastolako esan genien. Lan-keta berezi bat egin dugu, beraiek ere gela barruan lan-keta berezia egin dute. Gure materiala baliatu dute, eta pixka bat arikalatar ere badira. Horregatik, topaketan parte hartu dute. Iñigo Aritza ikastolakoek sekulako prestutasuna izan dute, beti laguntzeko jarrera. Egia esan, gozatua.

"HELBURUA DA IKASLEEN ARTEAN EUSKARAZKO LAGUNARTEKO HIZKERA SUSTATZEA"

"ERAKUTSI NAHI DIEGU BADAGOELA ERAKARGARRI IZAN DAITEKEEN EUSKARA BAT"



Arikalatarren talde argazkia Burunda frontoian. UTZITAKOIA



Haurrak elkarrekin jolasten aritu ziren estalpean. UTZITAKOIA



Burunda frontoian, begiak itxita, adierazten zietenari segituz. UTZITAKOIA

Lehen urteko emaitzak aipatu dituzu.

Ikerketa bat izanik zero puntua neurtzen dugu. Hezitzaile batzuek jolas garaian eta bazkaldoruan ikasleen arteko elkarriketak entzuten dituzte, behatzen dituzte. Ondoren, sei astez, gela barruan eta kanpoan materiala inplementatzen da. Eta, atzera ere, neurketa egiten da, bilakaerarik izan den edo ez ikusteko. Lehenengo urteko datuak onak izan ziren, igoera bat zegoen, erabilera pauso bat zegoen. Eta ikusten genuen landutako esamoldeak eta esapideak erabiltzen zituztela. Beharbada

ez masiboki, baina azterna hor zegoen, han eta hemen ikusi genuen. Aurten apustua izan da hizkuntza baliabide horiek aberastea, gehiago, desberdinak ere eskaini, eta saiatu gara komunitate izaera eraikitzen. Euskara gure hizkuntza komunitate bezala ulertuta, hizketa komunitatera. Arikalatarren hizketa propioa sortu dugu eta, ahozko-tasunaz aparte, komunitatearekin identifikatzeko ikur, keinu, agurtzekoak, bestelako ikurrak-edo landu ditugu. Horretan zentratu gara, ea komunitatea landuz, komunitate berezi bateko kide izatearen sentsazio ho-

Lagunarteko hizkeran trebatzen

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eskainitako *Lagunarteko hizkerarekin jolasean* lantegia bere egin dute ibarreko lau ikastetxek. Guztira, zortzi ikasgelatako 155 ikaslek parte hartu dute saioetan, zehazki: Irurtzungo Atakondo eskolako DBH 2. mailakoak, Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolako DBHko 4. mailakoak, Altsasuko Iñigo Aritzta ikastolako DBHko 3. mailakoak eta Altsasuko BHI institutuko batxilergoko 1. mailakoak. Talde bakoitzak kultur elkarteko hezitzaileak dinamizatutako bi orduko saio bana izan du abendu eta otsail artean.

Saio horien bidez gazteei esamoldeak eman nahi izan zaizkie adarra jotzerakoan, ligatzean, maitasuna adierazterakoan erabiltzeko. Edo



Altsasu institutuko Batxilergoko ikasleak lantegian parte hartzen. UTZITAKOIA

hitx gordinak esateko. Aldi berean, erakutsi diete hizkuntzarekin jolastu eta ondo pasa dezaketela. Izan ere, euskara kolokiala erabiliz gustura senti daitezkeela erakutsi diete gazteei. Gainera, gazteak egoera informalean euskarazko lagunarteko hizkera

erabiltzera animatu dituzte. Euskarazko lagunarteko hizkera lantzeko dinamika eta jolasak baliatu zituzten hezitzaileek, hala gazteei hizkuntzarekin jolasteko aukera emanez. Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, ikasleek balorazio ona egin dute.

rretatik, atxikimendutik ea erabilera eragin ote daitekeen ere aztertzeke. Oraindik ez dugu neurtu.

Zein mailatako ikasleekin ari zarete?

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleekin hasi ginen joan zen urtean, aurten 5. mailan daudenak eta hurrengo urtean 6. mailan egongo dira. Hiru urteko ibilbidea izanen du egitasmoak. 4. mailakoak aukeratu genituen adin garrantzitsua izan zitekeelako, hizkuntz ohiturak-eta hor finkatzen zirelako. Bestalde, hizkuntz gaitasunaren eta haurren garapenaren baitan, hor salto kualitatibo inportante bat ematen delako.

Jende asko etorri zarete, ezta?

Ikasleez aparte, ikastola bakoitzeko irakasleak eta hezitzaileak etorri ziren Altsasura, baita Arikala taldeko hirurak.

Ikastolek egitasmoa praktikan jarritzen duzue. Zertan laguntzen zaituztete Mondragon Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak?

Bete-betean, eta eskutik helduta. Altsasuko topaketan izan ziren Euskaltzaindiko lagunak: Maider Garaikoetxea eta Iñaki Mendizabal, komunikazioko arduraduna. Harreman estua da. Azkenean, beraiek dira proiektuaren sustatzaileak. Altsasun izan zen ere Mondragon Unibertsitateko Arikalako arduraduna, egitas-

moko zuzendari Idurre Alonso. Eta Ikastolen Elkartetik Odei Guirado eta ni. Azken batean, alderdi bakoitzak bere ekarpena egiten du, baina oso modu koordinatuan eta eskutik helduta. Ez da erakunde baten edo bestearen afera. Erakundeetatik harago, Euskal Herrian erronka oso-oso itzela daukagu. Zailtasunak ere handiak dira. Errealitatea hori da, baina elkarlana da egoera honi aurre egiteko bidea.

Hiru urteko proiektua esan duzu.

Bai. Joan den urtean, lehen hartu-emanen esapide eta esamolde ikaskuntzan sartu ginen. Aurten komunitatea egiten jarri dugu azpimarra. Eta hurrengo urtean saiatuko gara ikastolaren baitan transmisio hori lotzen, 6. mailan dauden horiek ikastola-

"METODOLOGIAK LUDIKOAGO EGIN DITUGU, JOLASARI LEKU GEHIAGO EMATEKO"

"ATXIKIMENDUTIK EA ERABILERA ERAGIN OTE DAITEKEEN AZTERTU NAHI DUGU"

ko gainontzeko ikaskideei zabal-tzen saiatzen. Ildo hori dugu, baina ez dakigu; ikusiko dugu emaitzek zer ematen duten. Horrek finkatuko digu norabidea. **Errotarria berriro 4. mailara buelta liteke, bueltaka segitzeko?** Bai, hori da. Zerbait bizia izatea nahi dugu, ikastoletan egunerokotasunean sartzea. Orain arte ezagutzak erabilera ekarriko zuela, ildo hori landu da. Guk pentsatzen dugu erabilera ere ezagutza etorriko dela. Ezagutza oso zabala izateagatik ez badugu erabiltzen, ez goaz inora.

Altsasukoaren moduko beste topaketaren bat egingen duzue?

Bi egun horiek, printzipioz, aurtengoz horrela geratu da. Azken batean, Altsasun egin ziren jolas, joko eta dinamikak gela pila bat landu dituzte. Altsasukoa elkar ezagutzeko, elkarri erakusteko momentua zen. Horrelako zerbait antolatzea ez da erraza, jende asko mobilizatu behar da, gauza asko lotu behar dira. Baina etorkizunean zergatik ez? Ikerketan dabilzan hamar ikastolekin ari gara hau egiten eta etorkizunean proiektu hau Ikastolen Elkartean zabaldu, orokortu nahi baldin bada, aukera polita dela ikasleak elkar ezagutzeko, beste tokitako hizketak entzuteko, lagun berriak egiteko. Azken batean, ikasleen arteko Euskal Herri osoko sare-tze hori benetan indartzeko.

KOLABORAZIOA

Sakanako lexia konposatuak (IV)

JOSE LUIS ERDOZIA

Arropak / urak hartu Edo oihalezko beste edozerk. Pertsonekin ere erabiltzen da. Arropa, edozein dela ere, garbitzerakoan tamainan txikitu egiten denean esaten da «arropak hartu duela». Etxarri Aranazkoak dira hurrengo esaldiak: *Atzo uts beruen sartu niyan jersie ta gaur goizien erabat artuik zionan.* (Atzo ur beroan sartu nian jertsea eta gaur goizean erabat harturik zegonan). *Alako emakume puske zana, azkeneko urtiotien nola artu deen!* (Halako emakume puska zena, azkeneko urte hauetan nola hartu duen!)

Atorra hutsean, Atorra hasean, Mahuka hutsean / hutsik, Oin hutsean / hutsik, Hanka hutsean / hutsik, Izerdiak hutsean Nahiko orokorrak dira, Baztanen esate baterako 'hasean' erabiltzen dute. Posposizio moduan jokatzeko du hutsean adberbioak. Atorra edo alkandora ez beste jantzirik ez duela gerritik gora adierazten du lehenak. Bigarrenak, aldiz, oinetakorik gabe adierazten du eta, azkenak, izerdi paltsetan, erabat izerditurik

adierazten du. *Otz aundinaaki dee, ator utsien/ maukutsik faten duk lanian!* (Hotz handienarekin ere, atorra hutsean/mahuka hutsik joaten duk lanera!). *Bein etxia sartuta, oñutsien/ ankutsik yoten non!* (Behin etxera sartuta, oin hutsean/hanka hutsik egoten naun!). *Izerdiyek utsien esnatu nok siestati!* (Izerdiak hutsean esantu nauk siestatik!)

Atrebi izan Etxarri Aranatzen erabiltzen zen askotan. Ausartu. Ezezko kutsua hartzen du bere erabileran. Gaztelaniako *"ni se te ocurra"* edo *"no serás capaz"* adierazteko erabiltzen da. *Gaur gaupasa eiñen dekela? Atrebi izaan dek!* (Gaur gaupasa egiten duala? Atrebi izanen duk!).

Atzerabideak jarri Aranatzen eta Arakilen erabiltzen da. Oztopoak jarri, ez utzi zerbaitetan aurrera egiten. Gaztelaniako *"obstaculizar, poner impedimentos"* adierazteko erabil daiteke. *Udaletxien atziabidiek besteik ez zizkiebe jartzen olloteiye eitteko.* (Udaletxean atzerabideak besterik ez zizkidatek jartzen oilategia egiteko).

Atzo goizekoa ez izan Zaharra izan. Oso zabaldua dago Euskal Herria osoan. Berdin aplikatzen zaio norbaiti, nola gertaera edo gauza bati. *Uste ez padon dee, enion atzo goizekoa!* (Uste ez badun ere, ez naun atzo goizekoa!).

Aufaturik egon / ibili Sakana osoan erabilia izan da. Pozez, bolada onean egon. Seguru asko *"auff!"* ('aufa' EHN) interjekziozik dator, aditz bihurturik. Urdiainen *aupetuik* (aupaturik) erabiltzen dute, 'animatua' adierazteko. *Ez ten ikusten nola daallen erabat aufetuik, azkenontan!* (Ez dun ikusten nola dabilen erabat aufaturik, azken honetan!). Honela dakar Euskaltzaindiaren Hiztegiak: *"aufa* interj. Poza adierazteko hitza. Ik. *ufa*. *Aufa!*, ez zagok mundu guztian gu bezalako mutilik!"

Aurrez bidali, Haustapur bidali, Harrika bidali Aranatzen eta Arakilen erabilia dira. Ondotik, ingurutik bidali norbait. Alde egiteko esan, pikutara bidali. Aurrean bidali. Gaztelaniako *"mandar con viento fresco, a paseo"* esapideen baliokideak dira. Bigarrenaren osagaiak "hauts eta apur" dira, seguru asko eta bereziki Arbizun erabiltzen da. *Aittunek aurrez/ austepur bieldu zittuk sukeldeti aur guziek!* (Aitonak aurrez/ haustapur bidali ditik sukaldetik haur guztiak!). *Ezin izendu giñuban muturre sartu de frontonien, arriken bieldu ziegubabien fan zan asteko istillubek eta gero!* (Ezin izan genian muturra sartu ere frontoian, harrika bidali zigutean joan zen asteko istiluak eta gero). Euskaltzaindiaren Hiztegian Aurrean bidali dago jasoa esanahi berarekin.

Auzomotojorik egon / jarri Etxarri Aranatzen eta Ergoienako Lizarragan da erabilia. Egoera baten (festa, elurra...) hurbiltasunak eragiten duenean norbaitengan. Pozez edo irrikaz erabat harroturik, puzturik egon. Normalean



jendea harrotu egiten da horrelakoetan. Bere osagaiak auzo, moto eta jorik dira eta jatorria, ondorengo: garai batean, auzoko kontuak egitean, urte akaberan, afaria ere egiten zuten auzokideek eta, horretarako, emakumeek bereziki, motoa jotzen (ilea bildu buru gainean) zuten. Etxarri Aranatzen eta Lizarragan, gutxienez, erabiltzen da. *Nabai dik, bei, elurre ein ber deela. Aur guziek auzomotojorik ziek!* (Nabari dik, bai, elurra egin behar duela. Haur guztiak auzomotojorik zaudek!). *Donklementiek allatzen dienien lizerratar guziek auzomotojorik yoten ttun!* (San Klementeak ailegatzen direnean lizarragatar guztiak auzomotojorik egoten ditun!)

Aza pertzean bezala egon Sakana osoan erabilia. Oso nahasirik egon, erabakirik hartzeko gai ez izanik. Aza lapikoan egoten den moduan, nahas-nahas eginik. *Ez tikiyau nola yantzun, aza pertzien bezela gaudek ta!* (Ez zakiguk nola erantzun, aza pertzean bezela gaudek eta!). *Egun betien gauz bet, urrenguen kontrakue, aza pertzien bezela ziillek aspaldiyontan.* (Egun batean gauza bat, hurrengoan kontrakoa, aza pertzean bezala zabilek aspaldi honetan).

Azienda gobernatu Hau ere nahiko orokorra dela esan dezakegu. Abereak orokorrean zaindu, jatorriz. Noizbait, seme-alaben ardurari ere egokitzen zaio. *Azienda gobernatu biyertio enok tabernaa atiako!* (Azienda gobernatu bitarteo ez nauk tabernara aterako!). Euskaltzaindiaren Hiztegian

'governatu' aditzaren barnean, 3. sarreran, ganadu ezberdinak aipatuz: "Abereez mintzatuz, jatekoa eman eta zaindu. Bere artaldea ongi gobernatzeko duena. Bildotsak gobernatzeko artzainak badaki".

Aznahi egin Aranatzen eta Arakilen bereziki eta baita Ultzaman eta Zaraitzun ere. Hazka egin. Larruazala atzamarrez edo beste zerbaitez igurtzi. Gaztelaniako *"arrascar"* adierazten du. Bere osagaiak, bistan da, *(h)atz + na(h)i* dira eta beste eremu batzuetan *(h)atz + gura* (azkura). *Ein nazak asnei ipurdi geñortan, ez nok aungi allatzen eta.* (Egin iezaad aznahi ipurdi gain horretan, ez nauk ailegatzen eta).

Azpiantzak atera, Azpiak atera Lehena Etxarri Aranatzen eta bigarrena Urdiainen eta Ergoienan, gutxienez. Azpiak egin. Azpiak estarbi edo ukuilutik atera, bereziki urte osoan zapalduz ganaduaren hankazpian izan ondoren. Ikuilua egokitu. *Azpiantzak atia biyertien ezin nok tabernati agertu.* (Azpiantzak atera bitartean ezin nauk tabernatik agertu).

Bagaudela! Aranatzen da gehien erabilia. Norbaiten ondora iristerakoan, huraxe lasai antzean gutxienez, egonean dagoela, agur moduan esaten den esapidea dugu haxe. Gaztelaniako *"¡Buenas!, ¡Qué ta!"* "*¡Así ya se puede!"* esapideen parekoa izanen genuke. *Bagaudela! Ola yon zettekek, buube ta gorputze batee nekatu bee!* (Bagaudela! Horrela egon zaitekek, burua eta gorputza batere nekatu gabe!)

DUELA 25 URTE...



Gazteak euskararen alde

Euskararen aldeko gazte hitzarmenarekin bat egin zuten Lakuntzako Bil Tokik, Arbizuko Argi bideak eta Etxarri Aranatz, Baikaiku, Altsasu eta Ziordiko gazte asanbladek. Manifestua zabalteko, gazte erakunde gehiagorekin harremanetan jartzekoak ziren. Sei puntu zituen: hizkuntzaren sustapena, etorkizuna, eurak eta ingurua euskalduntzea, aldarrikapena, euskaraz bizitzeko nahia eta euskarak aurrera egiteko grina.



Kattuka haur eskolan eguzki plakak jarriko ditu udalak. ARTXIBOA

Kiroldegian eta Kattukan lanak egingen dira

Biak itxita daudela baliatu nahi du udalak lanak egiteko. Kiroldegian klimatizagailu berria jartzeko lanak egingen dituzte. Haur eskolan, berriz, argindarra sortzeko eguzki plakak. Soinu kutsaduraz kexatu dira bi ikastetxeak

ARBIZU

Arbizu Udalaren aurtengo aurrekontuan 1.805.405 euroa da, joan zen urtean baino 788.460 euro gutxiago. F. J. Flores Razkin alkateak azaldu duenez, "Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planera aurkeztu genituen hiru lanak jasota zeuden 2023ko aurrekontuan. Horregatik zen hain handia". Baina lanak

egiteko dirulaguntzarik ez zuen jaso, eta hiru eskaerak erreserban gelditu ziren: Fernando Urkia kaleko sareak eta zoladura berritzeko lanak, udaletxeko bulego eta artxibategiko solairuaren birmoldaketa eta kiroldegiko klimatizagailua berritzea.

Azken lan hori egiteko aukera izanen du. Izan ere, Nafarroako aurrekontuan jasotako emenda-

kin batek 120.000 euro bideratu-ko ditu Arbizuko Udalaren lan horretara. Razkinek azaldu duenez, "klimatizagailua jarri zenean kiroldegia eraikina txikiagoa zen. Ondoren gimnasioa eta sauna egin ziren. Dagoen klimatizagailuak ez du eraikin guztia girotzeko gaitasunik, eta zahartu dago". Lanak egiteko enpresa opatuz gero, obra kiroldegia

itxita dagoela egin nahi du udalak, agorrilean. "Udan klimatizagailu gabe egon daiteke, neguan ez", esan du alkateak.

Kattuka haur eskolak udan ixten ditu ateak eta garai hori baliatuko dute haren teilatuan eguzki plakak jartzeko. Lan horiek egiteko ibarreko zazpi enpresari eskaintzak egiteko proposamena egin die udalak, "bertan bizi, bertan lan ideari jarraituz", argitu du alkateak. Udalak lan horietara 80.000 euro bideratu zituen joan zen urteko aurrekontuan. Lan horiek egiteko Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE) dirulaguntza jaso du. Razkinek jakinarazi duenez, "eguzki plakak eraikin berean dauden haur eskola, udal biltegia eta ludoteka elektrizitatez hornituko ditu. Eta soberan geldituko da. Argindar soberakin hori udaletxera eta eskolara bideratu nahi genuke".

Argiteri eta eskola zaharrak

Arbizuko Udalak Alde Zaharreko argiteria publikoan zeuden bonbillak LED argiengatik aldatu zituen joan zen urtean. Aurten, berriz, Iruñeko etorbidearen, errepidearen txanda izanen dela aurreratu du. "Dirulaguntza on bat jasoz gero denak kolpean aldatuko genituzke, baina bitartean faseka arituko gara aldaketa egiten", argitu du Arbizuko alkateak.

Eskola zaharren eraikina kultur jarduerak eta bestelakoak hartzeko zaharberritzen ari dira. Razkinek jakinarazi duenez, lanak apirilean despidituko ditu eraikuntza enpresak. Bitartean, Arbizuko Udala azpiegitura berria nola kudeatu aztertzen ari da, erabilera araudi batean jasotzeko.

Bestetik, Udalak Arbizun antolatzen diren ospakizun eta festa egunetan ostalaritzaren ordutegia zein izanen den arautu du. Halako egunetan ostalariek haien establezimenduak 06:00ak arte zabalik izateko aukera izanen dute.

Foru administrazioa

Udalak utzitako lurretan Nasuvinsa enpresa publikoa San Joan biden gizarte alokairurako bost etxebizitza eraikiko ditu. Alkateak jakinarazi duenez, Nasuvinsak bete beharreko administrazio prozedura aurrera egiten ari da. Bitartean, udalak Agoonia edo Castejon etxea salgai du. "Galdezkadei asko jasotzen ditugu", azaldu du alkateak, baina saldu gabe segitzen du etxeak. 150.000 eurotan tasatu zioten etxea udalari.

Eskolako eta Kattuka haur eskolako ikasleek ikastetxetik kanpo denbora dezente ematen dute. Bi ikastetxetatik primeran entzuten da Sakanako Autobiako (A-10) trafikoa sortzen duen zarata. Ikastetxeetan nahikoa desatsegina dela aitortu dute eta soinu kutsaduragatik kezkatuta, Arbizuko bi ikastetxeek Nafarroako Gobernuari horren berri emanaz idatzia aurkeztu zioten eta, bide batez, soinu neurketak egitea eskatu. Soinu kutsadura balego beharrezko neurriak hartzea eskatu zioten foru administrazioari. Razkinek jakinarazi duenez, "Gobernutik esan dute hainbat herritan arazo bera dagoela. Eta erantzungo dutela".

KATTUKAKO ARGINDAR SOBERAKINA UDALETXERA ETA ESKOLARA BIDERATUKO DA

Nafarroako aurrekontuan ibarreko hamaika emendakin

EH Bilduk eta Geroa Baik proposatutako emendakinak Foru Administrazioaren aurtengo kontuan sartu dira

SAKANA

Nafarroako aurrekontuak onartu zituzten atzo. Hartan ibarreko udalen bederatzigintasmorako eta Sakanako Garapen Agentziaren (SGA) beste birako dirulaguntzak daude.

Guztien artean 966.168 euro egiten dute.

Sakanarako diru sailak honakoak dira: Irurtzango eskolan biomasa galdara jartzeko 100.000 euro, Ihabarko Eskribarena etxea zaharberritzeko 300.000 euro,

Aralarko santutegia: bideen hub-erako 10 euro, Uharte Arakilen aterpetxea egiteko 90.000 euro, Sakanako Mankomunitatearen egoitzatik amiantoa kentzeko 212.000 euro, Arbizuko kiroldegiko klimatizagailua berritzeko 120.000 euro, Bakai-kurako ekipamendua 24.500 euro, Urdiaingo frontoiko teilatutik amiantoa kentzeko 90.000 euro, Altsasuko euri uren kolektorea egiteko 300.000 euro, SG Aren Enerkidetarako 2.600 euro eta Editerako 17.058 euro.



Atakondoa eskolan biomasa galdara jarri nahi du Irurtzango Udalak. ARTXIBOA

ELKARTASUN AKTIBOA

guaixe

- » **Netanyahu epaileen aurrera eramateko.**
- » **Gazan proiektuak bultzateko.**

EGIN ZURE EKARPENA

Kontua
S0530350083240830140015

Bizum donazioa
08736 Kodea

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 8

M8 ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Ikasle Abertzalearen Emakume langile batu borrokara elkarretaratzea.
10:20an, Iñigo Aritza ikastolako patioan.

M8 ETXARRI ARANATZ Elkarretaratzea.

Isilarazi matxismoa elkarretaratzea Etxarri Aranazko Udalak deituta.
12:00etan, plazan.

M8 SATRUSTEGI Kafe solasaldia.

Arakilgo Emakume Taldearen kafe solasaldia eta kartelgintza.
17:00etan, elkartean.

M8 LAKUNTZA Mobilizazioa.

Sakanako Itaiaren Emakume langileok borrokara! Sozialismoa eraiki martxoaren 8ko mobilizazioa.
18:00etan, plazan.

M8 IRURTZUN Elkarretaratzea.

Isilarazi matxismoa Irurtzungo Emakume Taldeak eta udalak deitutako elkarretaratzea.
19:00etan, plazan.

M8 UHARTE ARAKIL Elkarretaratzea.

Mugimendu Feministak deitutako Gure bizitzekin negoziarik ez! elkarretaratzea.
19:00etan, plazan.

M8 LAKUNTZA Elkarretaratzea.

Mugimendu Feministak deitutako Gure bizitzekin negoziarik ez! elkarretaratzea.
19:00etan, plazan.

M8 ARBIZU Elkarretaratzea.

Mugimendu Feministak deitutako Gure bizitzekin negoziarik ez! elkarretaratzea.
19:00etan, plazan.

M8 URDIAIN Elkarretaratzea.

Mugimendu Feministak deitutako Gure bizitzekin negoziarik ez! elkarretaratzea.
19:00etan, herrietxean.

M8 ALTSASU Mobilizazioa.

Sakanako Itaiaren Emakume langileok borrokara! Sozialismoa eraiki martxoaren 8ko mobilizazioa.
19:00etan, Foru plazan.

M8 LAKUNTZA Emanaldia.

Lakuntzako ahots feministak emanaldia. Ondoren, pintxo poteoa. Lakuntzako talde feministak antolatuta.
19:30ean, plazan.

M8 ALTSASU Manifestazioa.

Mugimendu Feministak deitutako Gure bizitzekin negoziarik ez! eskualdeko manifestazioa.
20:00etan, lortia zabalguneko estalpetik.

LARUNBATA 9

ALTSASU Txirrindula irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Dorrao – Ergoiena, 45 kilometroko ibilbidea.
09:00etan, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Hitzaldia.

Mugikorreren eta pantailen auzia komunikazioaren garaian: ongizate emozionala eta komunikazioa jokoan hitzaldia Telmo Lazkano Muga irakasle eta adituarekin. Iñigo Aritza ikastolako antolatuta.
11:00etatik 13:00etara, Txiokan.

OLATZAGUTIA Tailerra.

Aurpegi zainketak Ana Imaz estetizistarekin: Pertsona bakoitzak aurpegiko tratamendu osoa egiten ikasiko du modu erraz eta dibertigarrian, bere eguneroko errutinara gehitu ahal izateko.
11:00etatik 13:00etara.

ETXARRI ARANATZ Jaialdia.

Otsailaren 20ko auziperatuak absolutzioa elkartasun jaialdia. Sarrerak egunean bertan 5 eurotan.
Gaztetxean.

17:00 Hitzaldia.

19:00 Kontzertuak: Berriz Tijuana, Ostikoka, Yakovlev 42, Kontralde eta The Bakatu taldeak. Ondoren, Djak.

ALTSASU Gazte agenda.

Nor da nor? jokoa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Ipuin musikatua.

Sakanako Haize Berriak bandaren Mainamikirri ipuin musikatua Eva Azpilikueta antzezlearekin eta Dantzarima dantza taldearekin. Euskaraz. Sarrerak agortuta.
19:00etan, lortia kultur gunean.

LAKUNTZA Kontzertuak.

Tropa do Carallo taldearen disko berria aurkezteko kontzertua eta Muga Zero talde lakuntzarraren kontzertuak.
19:30ean, kultur etxean.

IGANDEA 10

IRURTZUN Mendi irteera.

Iratxo elkartean mendi irteera: Sarbil.
08:00etan, Iratxo elkartetik.

ALTSASU Txirrindula irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Larreigoiko, 57 kilometroko ibilbidea.
09:00etan, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Areto futbola.

Sakanako Benjaminen Areto Futbol - Futbol 8 Topaketak, Altsasuko Zelandi frontoian.
10:00 Arbizu KT – Etxarri Aranazko KE
11:00 Uharte Neskak – Sutegi.
12:00 Aralar Mendi – Altsasu.
13:00 Altsasu KE – SD Altsasu



UTZITAKOA

ALTSASU Sorioneku! Euskal Eskultura 2.100 urte: 50 eskultorek parte hartu dute Eskuahaldunak, Euskal Herriko Eskultoreen Elkartearen erakusketa.
Otsailaren 20etik martxoaren 20ra. lortia kultur guneko erakusketa aretoan.



UTZITAKOA

M8 ETXARRI ARANATZ Defendatzaileak, eraldatzen duten emakumeak erakusketa.
Martxoaren 18ra arte. Liburutegian.



ARTXIBOA

M8 IRURTZUN Irurtzungo pintura tailerraren Emakumearen egunaren harirako erakusketa. Irurtzungo Emakume Taldearen XXXI. Emakumeei buruzko jardunaldien barruan antolatuta.
Martxoaren 31ra arte. Tahanan eta Pikuxarren.

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Ez bota etxea leihotik!

ALTSASU Herri kirolak.

XXXVII. Nafar Herri Kirol Jokoen hirugarren jardunaldia.
10:30ean, Burunda frontoian.

ETXARRI ARANATZ Tailerrak.

Txokolika: berdintasunean hezteko gunea haurrendako eta gazteendako tailerrak.
12:00etan, plazan.

M8 IHABAR Film proiektzioa.

A tiempo completo filmaren zineforuma, Arakilgo Emakumeen Taldeak antolatuta.
17:00etan, herri etxean.

M8 IRURTZUN Ipuin musikatua.

Sakanako Haize Berriak bandaren *Mainamikirri* ipuin musikatua Eva Azpilikueta antzezlearekin eta Dantzarima dantza taldearekin. Euskaraz. XXI. Emakumeari buruzko jardunaldien barruan.
19:00etan, Bi Aizpe frontoian.

ASTELEHENA 11**ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

IRURTZUN Formakuntza.

Eko Baratzen inguruko formakuntza saioa.
18:00etan, udaletxean.

ASTEARTEA 12**ETXARRI ARANATZ Ipuin kontalaria.**

Dorleta Kortazar ipuin kontalariaren *Zu eta ni* ipuin kontaketa saioa.
17:30ean, liburutegian.

ALTSASU Aurkezpena.**ZINEMA****ALTSASU**

¡ORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Los que se quedan gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Igandea 10: 19:30
Astelehena 11: 19:00

Sala de profesores gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 14: 19:00

¡ORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Tótem zineforum filmaren emanaldia
Igandea 10: 19:00

Los pequeños amores zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 14: 19:00

Altsasuko Itzulia 2024ko hirugarren etaparen aurkezpena Juan Mari Guajardo esatariak aurkeztuta. Javier Ollo Altsasuko alkateak eta Julian Eraso OCETAko presidentek bi entitateen arteko kontratuaren sinaketa. Ondoren, solasaldia: Oscar Guerrero, Jorge Azanza, Iker Mintegi, Juanma Hernandez, Hugo eta Unai Aznar eta Iker eta Igor Flores. Sarrera libre aforoa bete arte.
18:00etan, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Hitzaldia.

Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek? Iñaki lurrebasoren hitzaldia. UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak eta Etxarri Aranazko Udalak antolatuta.
18:30ean, kultur etxean

ZIORDIA Liburu aurkezpena eta solasaldia.

Asisko Urmenetaren *Gora euskal herrientak!* Emakume aitzindariak kulturaren trantsizioan inguruko saiakera grafikoaren aurkezpena eta solasaldia.
19:00etan, liburutegian.

ASTEAZKENA 13**ETXARRI ARANATZ Hitzaldia.**

Mugikorren auzia hitzaldia Telmo Lazkano Muga irakasle eta adituarekin, Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolak, Sakanako herri eskolek eta Altsasu institutuak antolatuta.
17:00etatik 18:30era, kultur etxean.

M8 ALTSASU Hitzaldia.

Indarkeria bikarioaren inguruko hitzaldia Sortzen erakundeko Norma Vazquez Garciarekin. Gaztelaniaz. Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuak Emakumearen Egunaren harira antolatu duen *Isilarazi matxismoa* programaren barruan. Izena ematea: berdintasuna@altsasu.net.
18:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 14**ETXARRI ARANATZ Hitzaldi informatiboa.**

Familia Harrera Sakanari buruzko hitzaldi informatiboa: familia saila, Sakanako harrera familia eta Etxarri Aranazko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen parte hartzearekin.
17:30ean, kultur etxean.

IRURTZUN Hitzaldia.

Mendiaren eta osasunaren arteko harremanaren inguruko hitzaldia, Mendi Jarduerak programaren barruan, Iratxo elkarteak antolatuta.
19:30ean, kultur etxean.

OSTIRALA 15**M8 ALTSASU Hitzaldia.**

Indarkeria estetikoari buruzko hitzaldia Berhezi elkartearen eskutik. Euskaraz. Altsasuko Udaleko

Gazteria zerbitzuak antolatuta, Berdintasun zerbitzuak Emakumearen Egunaren harira antolatutako *Isilarazi matxismoa* programaren barruan.
18:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Tailerra.

Irakurkide txakurrekin irakurtzeko tailerra, Biak Baten eskutik.
18:15ean, liburutegian.

IRAGARKI SAILKATUAK**HIGIEZINAK****SALGAI**

Pisua bajearekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interesatuak deitu 669 156 117 tfnora.

LEHIAKETA

'Erdialde' euskarazko idazlan laburren 17. lehiaketa: 6 urte-rik gorako haurrei zuzendua, maila ezberdinetan banatuta egongo da lehiaketa, maila bakoitzeko 3 sari. Lanak aurkezteko epea 2024ko apirilaren 30an amaitzen da Miranda de Argako Tudelana kaleko 3.zb-kiko egoitzan edo erdialde. euskararenlagunak@gmail.com posta elektronikora idatziz. Oinarriak <http://euskararenlagunak.wordpress.com> antolatzailen helbidean. Sariak 2024ko maiatzaren 18an banatuko dira, Miranda de Argan izanen den *Euskararen eguna* ospakizunean. Irabazleei alde zuretik abisatuko zaie.

OHARRAK

Etxarri Aranazko Udaleko Abeltzaintza Batzordetik dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dagoela jakinarazten dute: Partzela generikoa erabili ahal izateko, Europako Nekazaritza Politika Bateratuak ematen dituen dirulaguntzak eskatzeko udaletxean (10:00etatik 14:00etara) izena eman behar da martxoaren 15a baino lehen. Eskabide orria betetzearekin batera, abeltzaina lehentasuneko katalogutako nekazaritza ustiatzako titulartzat jotzen duen ziurtagi-

IRURTZUN Film dokumentala.

HRP Udalatx ura eta atxa film dokumentalaren proiektzioa. Mendi Jarduerak programaren barruan, Iratxo elkarteak antolatuta.
19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Ikuskizuna.

Jon Maiaren *Kantu berri bat gara* kontzertua.
22:00etan, kultur etxean.

ria eta aprobetxamendua esleitzeko Legeak ezarritzen dituenak agiriak aurkeztu beharko dituzte abeltzainek.

Sakanako Mintzake taldeak:

Altsasun astelehenetan 10:00etan liburutegian, ostegunetan 20:00etan Lezea tabernan eta ostiraletan 9:00etan Kaixo tabernan, Ziordian ostiraletan, 17:00etan liburutegian, Etxarri Aranazten ostiraletan 19:00etan Xapatero tabernan, Arbizun asteartean 16:30ean kiroldegiko tabernan, Lakuntzan asteazkenetan 18:15ean jubilatutako elkartearen eta Irurtzunen astelehenetan 18:30ean Iratxo tabernan, ostegunetan 9:00etan Pikuxarren eta ostiraletan 19:00etan Pikuxarren ere. Parte hartzeko deitu 600 482 024 telefonora.

Patxi Bisquerten 'Onbuaren itzala' filma bukatzeko diru ekarpenak:

Otaño bertsoari-poetaren bizitza eta obrari buruzko filma bukatzeko diru ekarpenak egitera animatzen zaituztegu: <https://www.verkami.com/projects/37275-onbuaren-itzala> webgunearen bitartez egin daitezke edo egilearekin harremanetan jarri eta kontu korrontearen zenbakia helaraziko dizue: pmirena-bisquert@hotmail.es emailera idatziz edo 687 841 313 telefonora deituz. Proiektuari buruzko informazio gehiago: <https://pellomariotafioazulana.es> webgunean.

Olazitiko Udaren Euskaraz kanpainarako izen ematea zabalik:

Martxoaren 15era arte izena eman daitezke 948 012 012 telefonora deituz. Udako

aisialdi eskaintza ekainaren 24tik uztailearen 18ra izanen da, D eta B ereduaren ikasten duten HH eta LH ikasleentzat. Matrikularen tasak eta deialdiari buruzko informazio gehiago www.olazti.eus webgunean.

Lakuntzako Udalaren informazioa jasotzeko WhatsApp

kanal berria: WhatsApp aplikazioaren bitartez herrian barna dauden iragarki taulek etab-en informazioa jaso ahalago da hedapen zerrandaren bitartez. Gogorazari dute ez dela udalarekin harremanetan jartzeko kanala izango eta ez direla mezuak erantzun, informazioa jasotzeko bakarrik izango da. Horretarako 672 778 598 telefono zenbakia zure kontaktuen agenda gorde beharko duzu eta ALTA hitza bidali WhatsApp bidez berriak jasotzen hasteko. Emandako datuen tratamenduari arduraduna Lakuntzako Udala izango dela gogorazari du. Sakanako Etxera eguneko bazkarirako txartelak salgai: Sarek antolatutako Etxera eguna Etxarri Aranazten egingo da, apirilaren 6ean. Bazkarirako txartelak Xapatero eta Leku Ona tabernetan salgai 20 eurotan. Bazkaria plazan izango da, 15:00etan.

Berto Udalekuek gazte-txoendako izen emate epea zabalik:

Apirilaren 17ra arte izena eman daitezke. Argibide gehiago (Txandak, taldeak...) www.berzozale.eus web orrian, 943 694 129 zenbakira deituz edota aisialdia@berzozale.eus helbidera idatziz.

iragarki@guaxe.eus

www.iragarkilaburak.eus

107.3 FM
beleixe

10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

PRENTSA ETA EGURALDIA
BATETI BESTIA
EGUNEKO ALBISTEAK
HIZKETAN
SOLASALDIA:
ARALAR ETA KARRAPE
IRRATIEKIN
AGURRA

ESKELA



Mikele Aierdi Aierdi

—Goian bego—

Eulaten, 2024ko martxoaren 1ean hil zen, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

Beti izango zara gure bihotzetan

Anai-arrebak; M. Angela (†), Eugenio (†) eta M. Juana Gozalo, Javier eta M. Carmen Razquin, M. Mercedes (†), Jose Antonio eta Ana Tomero, Gregorio eta Elena, Ana Mari eta Patxi; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Olazagutian, 2024ko martxoaren 8an



ESKELA



Mikele Aierdi Aierdi



Iñigo Aritza Ikastolako lehenengo andereñoa
Garai zail haietan, oztopoak gaindituz,
euskara irakaste bidea ireki zuen anderea.

Iñigo Aritza ikastolako hostoak orbel.
Lurrak, goxo har zaitzan.

**Iñigo Aritza ikastolako familia, irakasle,
ikasle eta langileak**

ESKELA



Izeba Mikele maitea

Gure ondotik joan zara,
baina beti izango zaitugu gure bihotzetan.

Gurekin beti-beti



ESKELA

Jesus Rodriguez Gonzalez



Iruñean hil zen 70 urte zituela

Beti izango zara
gure oroimenean eta bihotzetan

Zure familia
Etxarri Aranatzan, 2024ko martxoaren 4an

ESKELA



Axun Betelu Satrustegi

Lakuntzan zendu zen, 2024ko martxoaren 4ean, 57 urte zituela.

Beti izango zara gure bihotzetan

Etxekoak

ESKELA



Axun Betelu Satrustegi

Beti egongo zara gurekin

1966ko kintoak
Lakuntza

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

JAIOTZAK

• **Aleix Ganuza Machado**, otsailaren 23an Altsasun

HERIOTZAK

• **Bartolome Lopez Luceño**, otsailaren 28an Altsasun

- **Maria Antonia Fernandez de Garaialde Arregi**, otsailaren 28an Altsasun
- **Mikele Aierdi Aierdi**, martxoaren 1ean Olaztin
- **Miguel Maria Goñi Lazkano**, martxoaren 4an Irurtzunen
- **Axun Betelu Satrustegi**, martxoaren 4an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
📧 @Grupolrache
📘 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es



Mikel Astiz, Lizarrako Duatloiko podiumaren gorenean, Josu Etxeberria eta Martin Eslava alboan dituela. NAFARROAKO TRIATLOI FEDERAZIOA

Mikel Astizen errezitaldia hasi da

DUATLOIA Ihabarko duatletak 7. Lizarrako Duatloia irabazi zuen igandean. Sergio Garcia de Eulate eta Ekhi Congil Top 20an sailkatu ziren. Astizek, martxoaren 23an jokatu den Altsasuko XIII. Duatloian joan zen urteko garaipena berriro nahiko luke

Igandean 7. Lizarrako Duatloia jokatu zen, sprint distantzian (5 km-22 km-2,5 km). Proba oso lehiatua izan zen, eta Hiru-Herriko Mikel Astiz ihabardarra izan zen txapelduna (1:00:49), 5 segundora Josu Etxeberria (Cafes Foronda) zuela. "Pozik nago. Aurtengo hirugarren duatloia zen, eta badirudi gauzak ateratzen hasi direla" azaldu du Astizek.

Sakana Triatloi Taldeko kideek lan ona egin zuten. Sergio Garcia hamahirugarren (1:04:28) eta Ekhi Congil hemezortzigarren izan ziren (1:06:20), Top 20an. Juan Luis Maiza 34. iritsi zen (1:09:24), beteranoen 2 mailako lehena, Ruben Garcia 36. (1:09:48), eta Juan Carlos Gomez 46. (1:12:14). Emakumezkoetan Sara Modrego gailendu zen (1:11:07).

Duatleta sakandarrak martxoaren 23an jokatu den Bioracer Altsasuko XIII. Duatloirako prestatzen ari dira. Mikel Astiz izan zen joan zen urteko txapelduna, eta aurten ere garaipena berriro nahiko luke. Izena ematea zabalik dago (navarratriatlon.com). Martxoaren 9an, larunbata, Aoizko Duatloia jokatu dute, Nafarroako Txapelketa Laburra.



Nafarroako Herri Kirol Jokoak, Altsasun

HERRI KIROLAK 37. Nafarroako Herri Kirol Jokoen hirugarren jardunaldia martxoaren 10ean, igandea, 10:30etik aurrera jokatu da Altsasun. Eguraldi kaxkarra egiten badu, Burunda pilotalekuan izango da, eta, bestela, lortuako plazan. Proba konbinatueta 39

lehiatuko dira, kimuen, haurren eta kadeteen mailatan banatuta. Sokatiran, guztira 17 talde, haurren eta kadeteen mailatan. Andra Mariko eta Iñigo Aritzako taldeek hartuko dute parte. Giro ederra egoten da, ikusle asko, eta hurbiltzeko deia egin dute, "merezki duelako".



Soilik Ibai Villatek eutsi zion Iker Gomez en erasoari. UTZITAKOIA

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Junior mailako txirrindularitza denboraldia hasi berri da. Nafarroan bi lasterketa jokatu dira, eta dagoeneko podiumaren go-renera igo da Iker Gomez Lopez de Goikoetxea altsasuarra (Quesos Albeniz-Burunda). Otsailaren 25ean Villatuertan zazpigarren sailkatu zen, 6 minutuko alde zuten ihesaldiari atzetik erasoia jota 5 minutu eta erdi erremon-tatuz, eta igandean, Altsasun, Burunda klubeko etxeko proban, 38. Udaberriko Sarian mustu du denboraldiko garaipenen kutxa. "Altsasun juniorren bi proba dauzkagu, Burundakoa eta Altsasu Kirol Elkarteak martxoaren 24an antolatuko duen LXV. Erramu Trofeoa. Etxean gogo gehiagorekin aritzen gara, eta ibilbidea primeran ezagutzen nuen, horrek indar gehiago eman zidan" azaldu du Iker Gomezek.

Lehen igoeran, erasoia

Euria, haizea, hotza eta Altamiran gora elurra. Halako panoramarekin jokatu zen Altsasuko proba. Altamirara hiru igoera ziren, eta guztira 80 km. Iker Gomezek argi zuen egin beharrekoa. "Eguraldia guztiendako berbera zen, eta horregatik ez nuen estrategia aldatuko. Sasoi onean nago, agian gainontze-koekin alderatuta nahiko indartsu, ilbeltzean Espainiako junior mailako selekzioarekin kontzentratuta egon nintzelako. Igotzea ere gogoko dut, eta horregatik Altamirako lehenengo igoeran jo nuen erasoia. Hasieran gainontze-koek zer egin, itxaron nuen. Batzuek pixka bat tiratu zuten, baina gelditu zirenean pentsatu nuen: "hau da nire momentua", eta erasoia jo nuen. Soilik bigarren sailkatu zenak, Ibai Villatek (Alimco-Campag-

nolo) lortu zuen nire gurpilera lotzea. Berarekin joan nintzen helmugaraino".

Talde ahaltsuaren gainetik

Iker Gomez bakarrik iritsi zen helmugara (2:06:29) eta 32 segun-do atera zizkion Villateri. Atzetik Alimco Campagnolo talde gasteiztarreko beste hiru txirrindulari iritsi ziren. Eñaut Oiarbide (Quesos Albeniz) seigarren sailkatu zen. Garaipena lortzeaz gain, mendiko eta tartekako helmugan sariak jaso zituen Iker Gomezek. Quesos Albeniz bigarren taldea izan zen, Alimco Campagnoloren atzetik. "Alimco Campagnolo talde oso indartsua da, estatu mailan Top 3an egongo da. Ia guztia irabazten dute. Hemen nolako maila dagoen erakusteko gogoz geunden; ez genien hemengo sari guztiak etxera eramaten utziko. Horregatik ere garaipen hau oso garrantzitsua izan da" nabarmendu du altsasuarra. Ez zuen ospakizun berezirik egin. "Olaztira joan nintzen, amonari lore sorta oparitzera. Gainontzekoan, ezer berezirik ez".

Ilusioz betetako bost taldekide

Aurten Quesos Albeniz junior taldeak bost txirrindulari ditu. Horietatik lau bigarren urtekoak dira, joan zen urteko Iker Gomez eta Iker Begiristain, Logroñoko Mikel Vitoria eta Sakana-Group-Aralartik etorri den Eñaut Oiarbide etxarriarra, "aurten Sakana Groupek ez duelako junior talderik atera". Kadeteen mailatik bakarra igo da juniorren mailara, Ekaitz Perez. "Taldekide gehiago izatea ez legoke gaizki, baina joan zen urtean lau ginen eta maila ona eman genuen. Aurten bostak oso gogotsu gaude, eta hori da

Denboraldiko lehena, etxean

TXIRRINDULARITZA Iker Gomez Lopez de Goikoetxea (Quesos Albeniz-Burunda) 38. Udaberri Saria irabazi zuen Altsasun, bere klubeko lasterketa. Juniorren bigarren urtean dago eta gogotsu ekin dio denboraldiari. Garaipen gehiagoren gosea du

garrantzitsuena. Lan egiteko gogoa eta ilusioa dugu; beraz, uste dut aurten ere maila egokia emango dugula".

Iker Gomezek 2023ko juniorren Nafarroako Challengea irabazi zuen. Junior mailako lasterketa guztiak puntuatzen dira bertan. "Sei garaipen lortu nituen, eta podium asko. Funtsean, Challengea irabazteak txirrindulariaren erregulartasuna erakusten eta saritzen du. Eta hori talde oso ona ginelako lortu nuen" nabarmendu du.

Selekzioetan

Iker Gomez Nafarroako selekzioarekin aritzen da. Aurten Espainiako junior selekzioak deituta, ilbeltzaren 18tik 21era ilbeltzaren 18tik 21era San Vicente del Raspeigen (Alacant) kontzentratuta egon zen, entrenamendu espezifikokoak egiten. Bi aste barru Espainiako selekzioak Guido Reybrouck Classic nazioarteko lasterketan parte hartuko du (Belgika), Paris-Roubeaux ongi prestatzeko. Galtzadarrietan trebatu nahi du dute. Oraindik ez dute aukeraturakoen zerrenda argitaratu, baina Gomezek bertan egon nahiko luke. "Esperientzia berria izango litzateke niretako; atzerrira ateratzea oso berezia litzateke. Askok ikasiko nuke. Belgikan beste modu batean lehiatzen dira, eta tropelean bata bestetik oso gertu egoten dira. Hori ikastea oso garrantzitsua litzateke nire etorkizunerako".

Gomez aurtengo nahi nagusia "dudan maila mantentzea, eta erregularra izatea" da. "Lasterketa guztietan ongi ibiltzea eta erregularra izatea txirrindulari onaren erakuslea da. Tourreko irabazleek egunero euren erregulartasuna erakusten dute, eta hori pixkanaka landu behar



Iker Gomez Lopez de Goikoetxea, Altsasuko helmugara iristean. UTZITAKOIA

da. Hori litzateke nire nahi nagusia, erregularra izatea". Zenbait lasterketa begiz jota ditu, Iruñerriko Itzulia edo Gipuzkoako Itzulia, esaterako. Joan zen urtean zazpigarren izan zen bietan, eta pauso bat aurrera eman nahiko luke. Horretaz gain, Nafarroako selekzioarekin Espainiako Txapelketetan "lan ona" egin nahiko luke. "Irabaztea oso zaila dago, baina amestea libre da" dio. Azkenik, Espainiako selekzioarekin proba garrantzitsueta parte hartu nahiko luke.

Agerikoa da Gomezek bizitza txirrindularitzari lotuta ikusten duela. Urte erabakigarria du aurten, juniorren bigarren urtea bukatuta afizionatuen maila da-torrelako, baina Gomezek lehen-tasunak argi ditu. "Lehenengo, Batxillergoko ikasketak bukatu behar ditut. Orain, horrek du lehen-tasuna. Gero txirrindularitzan zentratzeko unea helduko da. Jubenilen bigarren urtea, agian, txirrindularitza bizitzako urterik garrantzitsuena bilakatu da. Txirrindularitzan aurrera egiteko aukeraren bat sor daitekeela, horretan pentsatu behar dut".

Aldaketa garaia

Txirrindularitza asko aldatu da. "Junior maila profesionalizatu bezala egin da. Profesional talde batzuek junior mailako taldeak atera dituzte, euren txirrindulariak begi-bistan izateko. Ondorioz, txirrindularien maila asko handitu da". Txirrindulari askok oso gazte direla egiten dute salto profesioaletara; ez-tabaida hori mahai gainean dago aspalditik. "Hori, talde bakoitzaren araberakoa da. Potentziometroak atera zirenetik aurrerapen oso handiak egin dira. Wattioek azaltzen dituzten datuekin, norberaren oxigeno kontsumoa

zehazten duten esfortzu probekin eta bestelako datuekin, 18 urteko mutil edo neska batek profesional izateko behar den guztia ote duen ikus daiteke. Eta horrek prozesu guztia izugarri azkartu du. Gaur egun, txirrindulari asko junior mailatik profesional edo kontinental mailara pasatzen ari dira. Badirudi modan dagoe-la hori, jendeak momentuan bertan nahi duelako profesional izatea, ez du pausoka joan nahi. Dena den, hori norberaren erabakia da."

Iker Gomezek Wout van Aert txirrindularia du ispilu. "Bera bezalakoa izan nahi dut, berekin asko identifikatzen naizelako: ez delako ona ezertan, baina ez delako txarra ezertan ere. Denetarako balio du, egoera guztietan ongi defendatzen da. Eta nik kadeteetan eta juniorretan hori bera sentitu dut ere. Horregatik nire gustukoena da van Aert".

Sakandarrak, eta Itzulia

Txirrindulari sakandar profesionalak "oso indartsu" ikusten ditu. "Igor Arrieta eta Iker Mintegi profesional mailara igotzeak Sakanan maila oso ona dagoela erakusten du. Hori Sakanako txirrindularitarako oso ona da, euren pausoak jarraitu nahi ditugu, eta horrek motibatzen gaitu. Erreferenteak dira".

Itzuliko bi etapa Sakanan jokatzea "ikaragarria" da. Apirilaren 3koa Altsasun bukatuko da, eta apirilaren 4koa Etxarri Aranatzan hasi. "Handia da Itzuliko helmuga eta irteera Sakanan izatea. Probestu behar dugu".

Larunbatean Zumaia Saria dago jokoan. "Euskal Herriko talde guztiak egongo dira, eta Quesos Albeniztik garaipenagatik borrokatzeko espektatibekin goaz". Hala bedi.

Itzuliaren aurkezpena

Martxoaren 12an, asteartea, 18:00etan, Itzulia Basque Countryk Altsasun egingo duen hirugarren etaparen aurkezpen ofiziala egingo da Iortia Kultur Gunean. Juan Mari Guajardok aurkeztuko du ekitaldia. Egitaraua, GUAIXEko Agenda sailean dago ikusgai.

"EGURALDIAGATIK EZ NUEN ESTRATEGIA ALDATU: ALTAMIRAKO LEHEN IGOERAN JO NUEN ERASOA"

"TXIRRINDULARI ERREGULARRA IZATEA, HORI LITZATEKE NIRE NAHI NAGUSIA"
IKER GOMEZ

"Urte berezi honetan kirolaren aldeko apustua egin dut"

JUNE KINTANA LARRAZA DISKO JAURTITZAILEA

DISKO JAURTIKETA Asteburuan Europako Jaurtiketa Luzeen Kopan ariko da (Portugal), Erromako Europako Atletismo Txapelketak eta Parisko Olinpiar Jokoak buruan dituela

Maidar Betelu Ganboa BAKAIKU

Otsailaren 24an Neguko Jaurtiketa Luzeen Espainiako Txapelketa jokatu zen Jaenen. June Kintana Larraza atleta bakaiquarrak (Grupompleo Pamplona Atletico) neguko txapelketa horretako bere zazpigarren urrea lortu zuen, kilo bateko diskoarekin 53 metroko jaurtiketa egin da. Asteburuan, martxoaren 9an eta 10ean Leirian (Portugal) jokatu diren Europako Jaurtiketa Luzeen Kopan parte hartzeko hautatu dute, eta ilusioz gainezka dago. Aurten Europako Atletismo Txapelketak jokatu dira ekainean Erroman, eta bertan parte hartu nahiko luke. Parisko Joko Olinpikoetarako sailkatzea "oso zaila" ikusten du, baina ez du itxaropena galtzen. **Neguko Jaurtiketa Luzeen Espainiako Txapelketa oso estua izan zen. Pentsatzekoa da oso pozik egongo zarela txapelketa irabazi eta neguko jaurtiketen Espainiako txapelduna zazpigarren aldiz zarelako.**

Bai. Helburua irabaztea zen, eta oso pozik nago lortu nuelako, kontuan hartuta txapelketa nahiko gogorra izan zela. Negu honetan txapelketen martxa hartzea eta jaurtiketen distantzia luzatzea kostatzen ari zait; kontziente nintzen nire beste lehiakideak gertu zeudela eta borrokatu behar nuela. Bosgarren jaurtiketa arte, sailkapenean hirugarrena nindoa. Sentsazio onak nituen,

baina urduritasunak alde batetik, eta jaurtitzeko gehiegizko gogoak, bestetik, estutzen eta tentsionatzen naute. Bosgarren jaurtiketan nire buruari esan nion: "June, lasaitu zaitez, bestela horrela ez duzu ezer lortuko". Azken jaurtiketan 53 metro jaurtitzea lortu nuen, eta horrek eman zidan domina.

20 urtez azpiko Daniela Fernandez gaztea (Valencia Atletismo) gertu izan zenuen. 52,60 metroko jaurtiketa egin zuen hasieratik. Horrek espero baino gehiago estutu zintuen?

Bai. Belaunaldi berriak gogotsu datoz atzetik. Neska honek indartsu hasi du denboraldia. Momentuz 2024an gehien jaurti duen atleta izan da, 53,67 metroko marka pertsonala lortu baitzuen otsaila hasieran. Nik badakit orainxe bertan ez nagoela nire momenturik onenean, teknikoki gauza batzuk hobetzea falta zaidalako. Horregatik, esaten den moduan, otsoari belarriak ikusi nizkion. Baina aldi berean, banekien hobeki egin nezakeela. Aurten Manuel Martinez entrenatzailearekin denboraldia eta entrenamenduak planifikatu ditugun moduan denboraldia nahiko motza denez, banekien neguko txapelketak gogorak izango zirela niretako, oraindik ez baitut nire sasoi hoberena lortu. Aurten udako hilabeteetan hobeki egotea da planifikazioarekin bilatu duguna.

Bitxia da entzutea, horrenbeste urteren ondoren, teknika falta zai zula. Pentsatzekoa da entrenamendu planifikazioaz ari zarela.

Saiatuko naiz azaltzen. Prestakuntzaren aldetik aurten negu gogorra egin dut, entrenamendu indartsu eta potentea. Entrenamendu ordu asko izan dira, ariketa fisiko asko, eta gorputzak indar bat lortu du. Normalean baino gehiago landu ditugu gauza batzuk. Orain lortu nahi dudana da, pazientziarekin, gorputza funtzionalitate berri horrekin lan egiten ohitzea, teoriaran hobea dena. Laburbilduz, gorputza ohitzea, transformatzea eta hori guztia disko jaurtiketaren teknikara eramatea. Horrek teknikoki denbora behar du. Indar gehiago duen gorputza disko jaurtiketaren mugimendura egokitu beharra dago, eta mugimen-

"OSO POZIK NAGO NEGUKO TXAPELKETA IRABAZI DUDALAKO. JOAN ZEN URTEKO ARANTZA KENDU NUEN"

"ORAINDIK EZ DUT NIRE SASOI HOBERENA LORTU. UDAN HOBEKI EGOTEA DA HELBURUA"

JUNE KINTANA

duaren puntu guztiak aprobetxatu behar ditu, nahi dugun helburua lortzeko: diskoa urrutiago jaurtitzeko. Pieza horiek bat egitea eta ongi enkajatzeko da orain kostatzen ari zaidana. Ez da erraza azaltzea.

Fisikoki ere indartsuago ikusten zaizu.

Bai, egindako entrenamendua bisualki ere ikusten da. Normalean baino pisu gehiago hartu dut, baina pisu funtzionala da, hau da, indar gehiago lortu dut. Orain falta zaidana da hori teknikara bideratzea, eta indar horrekin diskoa urrutirago jaurtitzeko saiatzea.

Lortutako indarra ongi bideratzea, nolabait esateko.

Hori da. Ikasi behar dut indar hori aplikatzen, baina anplitudearekin. Ez du indar basatia izan behar. Disko jaurtiketaren mugimendua aprobetxatzea, eta indar hori ematen ditudan biretan edo giroetan aplikatzea, disko urrutiago jaurtitzeko.

Zure marka pertsonala 58,08 metrokoa da, joan zen urtean Bartzelonan lortutakoa. 60 metrotik gertu egon nahiko zenuke, ekainean Erroman jokatu diren Europako Atletismo Txapelketetarako sailkatzeko. Aurretik, asteburu honetan, martxoaren 9an eta 10ean Europako Jaurtiketa Luzeen Kopa jokatu duzu Portugalen. Dagoeneko bertan hasiko litzateke zure progresio hori nabaritzen?

Hori ezin dut jakin. Azkenean gauza bat da zuk denboraldi hasieran antolatzen duzuna eta dituzun helburuak, baina badaude eragiten duten beste faktore batzuk ere: momentuan zure egunerokotasunean dituzun arazoak, edo psikologikoki ere prestatzen joatea. Idealena izanena litzateke aste honetatik aurrera hobetzen joatea, baina hori ezin dut ziurtatu, gauza bat delako zuk nahi duzuna, eta bestea gorputzak egiten duena. Teorikoki hemendik aurrera gero eta hobeki sentitzen hasi beharko nintzateke; ea emaitzetan eta txapelketetan hori ikus daitekeen. Portugalgo Europako Jaurtiketa Luzeen Kopa denboraldi honetako beste helburuetako bat da; ea hobekuntza nabaritzen den. **Neguko Jaurtiketa Luzeen Espainiako Txapelketa irabazteak indarra emango zizun, baikortasuna.** Bai. Joan zen urtean, sei urtez jarraian neguko urrezko domina lortu eta gero, bigarren izan nintzen, zilarrezkoa. Aurten berri-





June Kintana, Neguko Jaurtiketa Luzeen Espainiako Txapelketan. MIGUELEZ TEAM

ro ere urrezkoa lortu nahi nuela, pentsamendu horrekin joan nintzen Jaenera.

Joan zen urtekoa, zure lehendabiziko blokeoa izan zen lehiaketa batean. Guztiz kateatuta geratu zinen Neguko Jaurtiketa Luzeen Espainiako Txapelketan.

Bai, oso gogorra izan zen. Sentsazio oso onak nituen, banekien oso ongi egin nezakeela, baina alde psikologikoak gehiegi eragin zidan. Buruan sartuta nuen txapelketa hori izango zela, nolabait, nire azken aukera beste helburu batzuei begira, eta presio horrek blokeatu ninduen. Hori argi ikusi zen emaitzetan, ez nuen nahi nuena lortu. Baina, aurten, beste egoera batean egonda, gauzak erlatibizatzen, eta psikologoarekin landu ditudan aspektu batzuei esker, nire pentsamendua zen bai, irabazi nahi nuela, baina garrantzitsuagoa zela txapelketa disfrutatzea eta norbera bere lanarekin, prozesuarekin edo bere emaitzekin pozik egotea. Ahalik eta hobekien egin behar nuela, eta saiatuko nintzela, eta ongi ateratzen bazen, primeran. Lehena izan naiz, eta oso pozik, baina bigarrena edo azkena geratuko banintz ere, egindako lanarekin pozik banengoen, ba horrekin aurrera. Azkenean, horretan datza. Presioarekin ez da ezer lortzen; blokeatzen zara, eta emaitzak ez dira ateratzen.

Leongo albaitaritzatik ikasketak bukatu dituzu, baina Leongo goi errendimenduko teknifikazio zentroan jarraitzen duzu, Manuel Martinez entrenatzailearekin entrenatzen. Buru belarri al zaude kirolean zentratuta?

Aurten kirolaren aldeko apustua egin dut. Urte berezia da hau, Europako Atletismo Txapelketa eta Olinpiar Jokoen urtea delako. Honetan nire %100 ematen saiatu nahi dut, ea emaitzak ateratzen diren. Kirolaren aldeko apustua egin dut, eta urte honetaz disfrutatu nahi dut. Datorren denboraldian albaitari gisa lan egiteko lana bilatzen hasiko naiz, baina orain kirolean zentratuta nago.

Olinpiar Jokoa aipatu dituzu. Sailkatzea zaila da, baina ez da itxaropena galdu behar.

Itxaropena ez da inoiz galtzen, baina beti esaten dut oso-oso zaila izango litzatekeela klasifikatzea. Maila handia dago, eta klasifikatu ahal izateko nire marka pertsonala hobetu behar nuke eta hainbat faktore el-

kartu beharko lirateke. Ez dut alboratzen, baina kontziente naiz ez dela batere erraza.

Parisko txartela lortzeko zein da eskatzen den gutxieneko disko jaurtiketa?

Emakumezkoen disko jaurtiketan 61,50 m gutxi gorabehera eskatzen dute. Halako jaurtiketaren bat egingo banu, zuzenean lortuko nuke txartela. Baina kontuan izan behar da, 61,50 m, ia 62 m, Espainiako errekorra litzatekeela. Beraz, hasteko eta behin Espainiako errekorra gainditu beharko nuke, eta hori ez da erraza. Zintzoki, ez dut honetan ere gehiegi pentsatu nahi. Ni, pausoz-pauso.

Bestela, Europako Txapelketan eta bestelakoetan puntuak lortzen, rankingean gora egiten lor daiteke Olinpiar Jokoetarako sarbidea.

Hainbat txapelketatan marka onak lortu beharko nituzke, eta horiekin puntuak lortu, rankingean gora egin eta klasifikatzeko. Horregatik niretako garrantzitsuagoak dira udako txapelketa horiek, hori burua zentratuagoa. Neguko denboraldian asko kostatzen zait martxa hartzea. Neguak gogorrak egiten zaizkit. Hau nire ibilbide guztian barna gertatu zait, eta aurten baita ere. Entrenamendu asko dago atzetik, lan gogorra, eta transformazio horrek denbora behar du behar bezala nabaritzeko. Askoz hobe aritzen naiz udan. Espero dezagun hala izatea.

Agerikoa da Neguko Jaurtiketa Luzeen Espainiako Txapelketa irabazteak psikologikoki bultzada handia eman dizula Portugalerako eta datorren guztirako.

Izugarria. Orain Leonen nago entrenamenduekin jarraituz, burua asteburuan Portugalen jokatuko dugun Europako Jaurtiketa Luzeen Kopan dudala. Ea lan ona egiten dugun.

"INDAR GEHIAGO DUT ORAIN, ETA INDAR HORI JAURTIKETAREN TEKNIKARA EGOKITZEN ARI NAIZ"

"EUROPAKO ATLETISMO TXAPELKETA DUT BURUAN. OLINPIADAK OSO ZAIL DAUDE"

JUNE KINTANA



Maria Risco eta Fran Araña. JESUS BARADO

Mendi lasterketen denboraldia, martxan

MENDI LASTERKETAK Gaur Triku Traileko izena ematea irekiko da, eta asteazkenean Lakuntza-Aralarrekoa

Igandean ia 400 mendi korrikalarik parte hartu zuten Galar Trailean. Imanol Kañameres (1:47:28) eta Maddalen Jimenez (2:16:57) izan ziren txapelkun handiak, eta hamar korrikalari sakandarrek lortu zuten proba despeditzea. Iñigo Mitxelena, 58. postuan (2:20:00) eta Erkuden San Martin, 340. postuan (3:18:39) buru zirela.

Hamaika lasterketa daude, eta denboraldia planifikatu beharra dute korrikalariak. Gaur, martxoak 8, 12:00etan, Etxarri Aranzko Triku Trail lasterketako izena ematea zabalduko da (*Kronoak*). Ekainaren 30ean jokatuko da, eta aurten bi distantzia izango ditu: ohikoa, 21 km, eta laburra, 10 km-koa. Euskal Herriko Mendi Lasterketan Koparako baliagarria izango da.

Asteazkenean, martxoaren 13an, Lakuntza-Aralar mendi lasterketako izena ematea zabalduko da, 17:00etan (*lakuntza-aralar.com*). Nafarroako Mendi Lasterketen Rankingerako baliagarria izateaz gain, Kluben Arteko Nafarroako Txapelketa izango da. Bi distantzian jokatuko da: 26 km, eta 13 km.

Bi lasterketek etiketa berdea dute, hau da, ingurumena zaintzen dutela eta proba etikoa dela ziurtatzen duen konpromisoa.

Binakako final handian egotea dute jokoan

PILOTA Etxeberriak eta Zabaletak, garaipena lortuz gero, hanka eta erdia baino gehiago izango lukete martxoaren 31ko Nafarroa Arenako finalean; aldiz, Altuna-Martija irabaztera derrigortuta daude, finalean egoteko borrokan jarraitzeko

Maider Betelu Ganboa ARAKIL

Binakako finalerdietako ligaxakako bigarren jardunaldian asko erabakiko da. Batetik, martxoaren 31ko Nafarroa Arenako final handitik ia kanpo geratuko den bikote bat nor den jakingo da, eta, bestetik, final horretan egoteko txartel asko lortuko duen bikoa nor den ikusiko da. Beraz, jardunaldi gakoa da, ikusmin izugarria piztu duena.

Lehen jardunaldiko irabazleek, Etxeberria-Zabaletak eta Artola-Imazek, larunbatean jokatu dute, Labriten. "Irabazten badugu finalean egoteko aukera asko izango ditugu. Bukaerara arte borrokatzen duen bikote gogorraren kontra lehiatuko gara, eta gu berdina egitera aterako gara, dena ematera" azaldu du Zabaletak. Altunaren eta Martijaren kontrako partidaren Etxeberri ikusgarri aritu zela galdeginda, ados dago. "Bere partida onena izan zen, eta horrela jarraitu behar du, erasokor".



Martija, Altuna, Jaka eta Mariezkurrena egoera larrian daude, hil ala bizi. ETB

Igandean Bilbok lehen jardunaldiko galtzaileen arteko partida hartuko du. Jaka-Mariezkurrena eta Altuna-Martija jakitun dira komodinik gabe geratu direla, eta galtzen duen bikoa ia finaletik kanpo geratu-

ko dela. Materialarekin gustura azaldu zen laukotea. "Altuna eta Martija dira faboritoak" azaldu du Jakak. Martijak badaki jotozaille handi baten kontra ariko dela, "baina ohituta nago. Ongi nago, konfiantzarekin, gogotsu".



Arbizuren agurra, Ogetan. ASPE

Aaron Arbizu, ibilbide berria Garfen

Aspek ez zuela berrituko, eta atzelari etxarriarrak igandean jokatu zuen bere azken partida, Ogetan. Salaberriarekin batera, 13-18 irabazi zieten Bakaikoari eta Salaverri II. ari. Pilotarien Elkarteko Baiko eta Aspeko pilotari guztiek omenaldi polita egin zioten, txapela eta guzti. Minduta dago Arbizu, ez du adierazpenik egin nahi izan. Pilotan jarraituko du; asteartean bertan Errioxako Garfe pilota enpresarekin kontratua sinatu zuen.

FUTBOLA

EMAKUME PREFERENTEA

1. JARDUNALDIKO EMAITZA
Gares - Altsasu **3-2**

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 2. FASEA

1 Gares **3**
4 Altsasu **0**

HURRENGO JARDUNALDIA

MARTXOAK 9, LARUNBATA

16:30 Idoia - Altsasu (*Oteiza, Iturbixia*)

Altsasu vs Idoia, bihar

Altsasuk azken unean galdu zuen Garesen kontra. Idoiarekin partida ona egin nahi du.

GIZON PREFERENTEA

22. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Altsasu - Soto-Ibarbaso **0-1**

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Burlades B **43**
12 Altsasu **29**

HURRENGO JARDUNALDIA

MARTXOAK 4, LARUNBATA

16:30 Beti Onak B - Altsasu (*Atarrabia*)

Altsasuk Atarrabian du aukera

Azken jardunaldian Altsasuk ezin izan zuen Soto-Ibarbaso Dantzalekun mendean hartu. Bihar Beti Onak B-ren kontrako partidaren sentsazio onak eta 3 puntuak berreskuratu nahi ditu talde gorritxoak.

Zaldua, burua altxatzea

Elomendiko Txapelketan, Zalduak 3-2 galdu zuen Txaparrosen kontra. Hala ere, bosgarren jarraitzen du. Bihar Bidezarrak du arerio Noainen. Zalduak puntuak behar ditu.

GIZON ERREGIONALA

19. JARDUNALDIKO EMAITZA

Baztan - Etxarri Aranatz **1-4**
Zizur - Lagun Artea **3-4**

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Mutilbera C **45**
2 Etxarri Aranatz **41**
6 Lagun Artea **32**

MARTXOAK 9, LARUNBATA

16:30 Etxarri Aranatz - Berriozar (*S.Donato*)
Lagun Arteak atsedean jardunaldia du

Etxarri, sailkapenean bigarren

Etxarri bide onen jarraitzen du. Baztani irabazita, sailkapeneko bigarren postua berreskuratu du. Berriozarren kontra jokoan dauden 3 puntuak lortzea da erronka.

Lagun Arteak, atsedean jardunaldia

Zizurri azken minutuan irabazita, lakuntzarrek lasai hartu dute atsedena.



Iturrioz, Nafarroako txapeldunordea

XAKEA Asteburuan Nafarroako Kirol Jokoetako (NKJ) Nafarroako Xake Txapelketako azken faseko jardunaldia jokatu zen Iruñean. 14 urtez azpiko mailan, Oberena klubeko kide den Iker Iturrioz Salazar altsasuarrak lan bikaina egin zuen eta bigarren sailkatu zen (5 puntu), Mikel Gurea klubeko Angel Esparza txapeldunaren atzetik (5,5 puntu). Beraz, Nafarroako

txapeldunordea dugu Iker Iturrioz (argazkian ezkerrean, Sakanako Xake Txapelketan). Bestalde, 18 urtez azpiko mailan Oberena klubeko Ekain Galarza Arza urdiaindarrak lehiatu zen. Hamabost xakelariren artean Galarza seigarren sailkatu zen Nafarroako Txapelketan (3,5 puntu), Orvina taldeko Haymar Leone txapeldunetik (5,5 puntu) 2 puntura.

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANATZ 2021. urtean Jon Maiak *Kantu bat gara* disko eta liburuak kaleratu zuen. Bertan hiru hamarkadako ibilbidean egindako kantak bildu eta kantatu zituen. Ondoren, lan horretan oinarritutako bira egin zuen, eta kontzertuetan tokian tokiko kolaboratzaileez inguratzen zen. Orain Maiak *Kantu berri bat gara* lanarekin segida eman dio; lan honetan Gozategi, Negu Gorriak, Gari eta Pello Reparaz (Aurrera Altsasu) abestien bertsoak daude, baina beste guztiak berriak dira. "Identitate bat gara, nortasun bat eta kultura bat; hori da gai zentrala". *Kantu berri bat gara* kontzertua ere bada eta martxoaren 15ean, ostirala, 22:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean izanen da, "aurrekoaren estilokoa da egituran, gai asko tratatzen dira: elkartasuna, hizkuntza... Herri proposamena dela esango nuke".

Nola sortu zen 'Kantu berri bat gara'? Lehendabizi pentsatu nuen ea merezi zuen bigarren lan bat egitea. Nire ambizioa ez da kantaria izatea, baizik eta mezu bat zabaltzea. Mezu hori ote neukan pentsatzea izan zen lehenengo pausoa; eta bai. Lehenengo lana kantu bilduma bat izan zen, eta ez zegoen diskurtso koherente bat. Honetan, berriz, koherentzia handia dago. Azkenean, nik Euskal Herriaren iraganari eta etorkizunari egiten diodan begirada da. Aurrekoan ez zegoen hori. Hori izan da nire motibazio nagusia. Gero ere asko bultzatu nau, noski, lehenengoak izan duen arrakastak. Joan garen toki guztietara aretoak bete dira, oso areto handiak tartean. Horrek beti animatzen zaitu; ikustea jendeari interesatzen zaiola eta jendeak harrera beroa egiten diola. Hirugarren arrazoia da talde oso ona daukadala, goi mailako musikariak dira (Gorka Hermosa akordeoilaria, Pello Ramirez biolontxelo jolea, Nacho Soto piano jolea eta sintetizatzailea eta Nerea Quincoces perkusionista eta ahotsa), eta beti ez duzu aurkitzen horrelako tren bat aurrera egiteko. Horrek ere animatu nau.

Nola izan da sortze prozesua?

Kantuak pentsatu ditut kantuen aitzakiarekin egin dezakedan diskurtsoaren arabera. Lehendabizi pentsatzen dut zer esan

"Iraganari eta etorkizunari egiten diodan begirada da"

JON MAIA BERTSOLARIA

'Kantu berri bat gara' kontzertua emanen du martxoaren 15ean, ostirala, Etxarri Aranazko kultur etxean. "Gai asko" tratatzen diren emanaldia izanen da



Jon Maia, bertsolaria. UTZITAKOA

nahi dudana eta gero egiten dut kantua. Berterretxeren kantutik abiatzen naiz. Euskaraz dagoen kanturik zaharrena omen da. 1400. urte ingurukoa da, eta nire galdera da nola izan den posible kantu hori 600 urtean zehar gurea bezalako herri zatituan eta historikoki zapalduan bizirik iristea Spotifyren garairaino inoiz idatzia izan gabe. Nola bidaiatu duen kantu horrek Zuberoko borda batetik datorren asteko Etxarriko kontzerturaino. Giza kate erraldoi bat dago hor atzean, eta, nire ustez, hor dago gure iraupenaren sekretua. Horik abiatzen da diskoa. Bukatzen da *Euskal Herria B* izeneko kantu batekin, non hitz egiten duen euskal nortasun berriei buruz eta euskara berreskuratzen ari diren herriei eta pertsonari buruz. Normalean Euskal Herria esaten dugunean ahaztu egiten dugun Euskal Herri horri buruz; bigarren mailako Euskal Herri hori. Diskoa euskal kantu zaharretik etorkizuneko Euskal Herri nire ideiaraino joaten da.

Ibilbide bat egiten duzu.

Bai, mezuz mezu. Kontzertuetan ere kolaborazioak daude, baita

"KANTUAK PENTSATU DITUT EGIN DEZAKEDAN DISKURTSOAREN ARABERA"

maitasun kantak eta denetarik ere. Beti saiatzen naiz herriko edo inguruko jendea izaten, eta oraingoan ere horrela izango da. Kolaborazio horiek bertan deskubritzen joango dira. Hori dena Balu izeneko kaleko grafitulariak egindako irudiez eta proiektioez lagunduta. Oso iruditegi berezia sortu dugu lan honetan, eta nortasun handia ematen dio ikuskizunari.

Zein da helburua?

Idea da herriz herri mezu hori zabaltzea. Entzuleari kontzientzia bat zabaltzea: herri txiki bat gara, hiztun gutxi gara, baina oso handia den historia batek elkartzen gaitu. Saiatzen naiz kontzertu bakoitza ahaztu ezina izan dadin lortzen, emozioz eta edertasunez beteta.

Zure lanik handiena dela esan duzu. Zergatik?

Dimentsio handiko lana delako: liburu bat da, disko bat da eta gero zuzenekoak daude hori guztia gizarteratzeko. Nik uste geruza asko dituen lan bat dela. Jende askok lan egin du lan hau gauzatzeko, kolaborazio asko daude (Itziar Ituño, Olaia Inziarte, Luis Pastor kantautore madrildarra, Mikel Kazalis, Maddalen Arzallus, Ibrahima Balde, Ulu media, Elizondoko Abesbatza Ttikia eta Silvio Rodriguez) eta kontzertuetarako ere lan handia dago, musikariak, kolaborazioak eta abar. Nire herri ikuspegi osoena da. Ehunetik ehunetik nik erabaki dut nola izan behar den, eta horrek ematen du askoz pertsonalagoa izatea. Orain arteko nire lanik osoena eta sakonena da. Dokumentalak, diskoak, liburuak eta abar egin ditut, baina *Kantu berri bat gara* handiena da.

Nola uztartzen dira diskoa, liburuak eta kontzertua?

Nik dena batera ulertzen dut. Kontzertuan liburuak ez dago, baina kantugintzak hor daude, baita abestien azalpenak ere. Egin baino lehen nik dena batera pentsatzen dut. Kantu bat idatzi baino lehen ari naiz pentsatzen kantu horri esker zer esplikatu dezakedan kantuaren aurkezpenean, zer irudi eraman dezakedan proiektatuta, eta gero hasten naiz letrarekin. Musikarekin ere nire pistak edo ideiak ematen dizkiet musikariei. Dena batera pentsatzen dut, gero unibertso oso bakar bat osatzeko.



Xabier Artieda antzezle etxarriarra, ezkerrean, 'Kutxartean' ikuskizunean. @FETENGIJONIXON

Sakandarrak Feten antzerki jaialdian

Xabier Artieda antzezle etxarriarrak Teatro Paraiso konpainiarekin Kutxartean antzezlana aurkeztu zuen Xixongo jaialdian, eta Clown hoberenaren saria irabazi zuten. Eva Azpilikueta antzezle altsasuarrak 104. haurra lana aurkeztu zuen

SAKANA

Xixon Asturiasko hiriburuan egiten dute urtero FETEN nazioarteko haurrentako arte eszenikoen jaialdia. Aurten topaketa otsailaren 25etik martxoaren 1era izan da, eta bi antzezle sakandarrek parte hartu dute: Xabier Artieda etxarriarrak Teatro Paraiso konpainia gasteiztarraren *Kutxartean* (*Entrecajas*, gaztelaniaz) lanarekin, eta Eva Azpilikueta altsasuarrak Yarleku Teatro konpainiaren *104. haurra* (*La niña 104*, gaztelaniaz) antzezlanaekin. Artiedaren lanak jaialdiaren Clown ikuskizun hoberenaren saria irabazi zuten.

70 antzerki konpainia eta 1.000 profesional bakoitza gehiagok bat egiten dute jaialdian, eta akto-rendako "erakusleho eder bat" dela aipatu zuten Yarleku konpainiako kideek: "Gure lana erakusteko aukera ematen baitigu". Haien obrak Nafarroatik ateratzeko "ate bat" dela gaineratu zuten.

Clown ikuskizuna

2023. urtearen amaieran estreinatu zuen Teatro Paraiso konpainiak Kutxartean antzezlana Gasteizen. Xabier Artieda etxarriarra, Aritz Bengoa eta Xabier Flamarique dira antzezleak, Rosa Garcia egilea eta Tomas Fernandez zuzendaria. 2024ko Feten jaialdiko Clown onenaren saria irabazi du.

Antzezlana clown lengoia erabiltzen du publikoarekin elkarriketan jarduteko, eta sormenaren motorrean jokoa eta sorpresa daude. Istorioa espazio atemporal eta poetiko batean gertatzen da, zirku ukituekin, eta eszenatokian dauden harresiek eta kutxek unibertso propioa sortzen dute. Familiei bideratu

XABIER ARTIEDAK ETA EVA AZPILIKUETAK ANTZEZLANAK AURKEZTU DITUZTE XIXONGO JAIALDIAN

tako lana da, "irudimenaren apologia" egiten duen "jokoaren errekurtsioen garapenean" sinisten duena, sortzaileen esanetan.

Aurkezpena

Feten jaialdian ere Yarleku konpainiak *104. haurra* antzezlana aurkezpena egin zuen. Eva Azpilikueta altsasuarrak aktorea da, Laura Villanuevarekin batera. Haurren esplotazioaren auzia jorratu dute lan berriaren bidez. "Gizarte gaiak jorratu ohi ditugu, uste baitugu antzerkia ez dela bakarrik ikus-entzuleak entretenitzeko", aktore altsasuarrak aipatu duenez. Umezurztegi batean nork adoptatu zain dauden bi neskatu dira protagonistak: Itsaso eta Eki. Bien arteko adiskidetasuna jartzen du erdigunean obrak.

Laugarrenez aritu zen Yarleku Xixongo jaialdian, eta *104. haurra*-rekin batera Estefania de Paz Asinen Olvido Flores obra ere eraman zuen Feten-era. 2019an, Azpilikuetak emakume aktore onenaren saria jaso zuen.

'Mainamikirri' herri ipuina ikuskizuna bihurtuta

Haize Berriak bandak, Eva Azpilikueta antzezleak eta Dantzarima dantza taldeak eszenatokiratuko dute

SAKANA

Sakanako Haize Berriak bandak duela urtebete baino gehiago sortu zuen proiektua gauzatu da bihar eta etzi, martxoak 9 eta 10, Altsasuko Iortian eta Irurtzungo Bi Aizpe frontoian (19:00etan), hurrenez hurren: *Mainamikirri* ipuin musikatua. Bandaren helburua "Burunda inguruko kondaira batekin Sakanako herri kultura sustatzea" da, "ohiko ildoari jarraituz ikuspegi berritzaile eta integratzailearekin". *Mainamikirri* Burunda aldeko herri ipuin bat da, non

emakume jakintsuak errotan biltzen diren.

Castillo Suarezek ipuinaren bertsioa publikatu zuen, eta bertsio horretan oinarritu da Haize Berriak banda ikuskizuna sortzeko. Suarezek lanaren egokitzapena egin du ere. Anne Perez de Azpeitia konpositorea arduratu da musika konposatzeaz. Eva Azpilikueta dramaturgia eta arte zuzendaritza egin du, eta ikuskizunean Dantzarima dantza konpainiaren dantzariak ere parte hartuko dute, Irantzu Gonzalezen koreografiarekin.



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Gora martxoaren 8a!

Gaur martxoaren 8a da, *Emakumeen Nazioarteko Eguna*. Nazio Batuek eratu zuten eguna orain dela urte... asko? 1975ean izan zen, Franco hil zen urtean. Batzuentzat denbora asko pasa da, beste batzuentzat, berriz, ez hainbeste, zein den ikuspegia; izan ere, oraindik ez dira 50 urte pasa. Gizakiaren historia luzean zenbat da hori? Zenbat urte utzi zaizkio emakumei? Zenbat urteko historia da gizonena?

Historian izan diren emakume ospetsuei buruz galdetuz gero, askok egungo emakume garaikideen izenak aipatuko dituzte, Nafarroako (eta Madrilako!) lehendakariak, ministro zenbait, antzezle ospetsuak, modeloak... baina Ama Birjinak, santak, faraoi eta erreginak albo batera utzirik, nekez aipatuko dizute aro klasikoko emakumerik (agian, Hipatia?), edo XX. mendea baino lehenagorik: anglofiloek, beharbada, feminismoaren aitzindariak gogoratuko dituzte (Jane Austen, Emily Bronte, Ada Byron, Mary Shelley); galiziarrek, Rosalia de Castro; euskaldunek, agian, Bizenta Mogel; frantsesek, George Sand, eta espainolek, Fernán

Caballero, gizon izenez ezaguturiko emakumeak; yankiek, Emily Dickinson... edo Disney-ri esker, Pocahontas. Emakume izen bakan batzuk gizakiaren historiaren ozeano handian.

XX. mendea ahalduzarenaren izan zen. 1978ko martxoaren 8aren aurreko abenduan, Euskal Herriko Mugimendu Feministak I. Topaketetara emakume guztiak deitu zituen, bereziki, gizartearen zapalkuntza sentitzen zutenak... Eta argitaratu zuten fanzinean hauxe aldarrikatu zuten: *harkaitz sendo bat gara, itsas ertzeko harkaitz sendoa*.

Urteak pasa dira eta XXI. mendean formak aldatu dira, baina batzuen buruan sakoneko funtsa, ez. Matxistentzat 50 urte gehiegi dira. Eskubide gehiegi, botere gehiegi. Horregatik, adi egon behar da, gaur erdiesten dena ez baita betiko bermatzen. Patriarkatuaren olatuek urak harrotzen segitzen dute itsas ertzeko harkaitz sendoak higatu nahian; baina ez dute lortuko baldin eta lortutakoa eta lortu behar dena defendatzeko feminismoaren talaiatik aldarrikatzen badugu: *Gora martxoaren 8a!*



Burundar Txistulariak taldea kontzerturako entsegu batean. UTZITAKOA

XXI. mendeko txistu emanaldia

'Lau urte eta gero hau' kontzertua emanen du Burundar Txistulariak taldeak martxoaren 16an, larunbata, Iortia kultur gunean. Duela lau urte bertan behera utzitako kontzertutik abiatu dira, zerbait "berritzailea eta desberdina" egiteko

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU 2020ko martxoaren 13an, COVID-19 gaitzaren ondorioz alarma egoera eta konfinamendua ezarri zuten. 2020ko martxoaren 14an, Burundar Txistulariak taldeak *Han eta hemendik. Egungo txistua* kontzertua eman behar zuten Iortia kultur gunean. "Esfortzu handia egin genuen, entseatzeko jende guztia bildu genuen, lagunak laguntzera etorri ziren, sarrerak salduta zeuden... Mundua gainean erori zitzaigun", azaldu du Juan Pablo Urizar Burundar Txistulariak taldeko kideak.

Lau urteren ondoren, aurten "berriz" Iortia oholtzara igotzea erabaki dute, eta martxoaren 16an, larunbata, 19:30ean, *Lau urte eta gero hau!* kontzertua aurkeztuko dute. Sarrerak Iortia kultur gunearen webgunean eta txarteldegian eros daitezke 6

eurotan. Jo ezin izan zuten kontzertu horretatik zenbait abesti berreskuratu eta "hobetu" dituzten, tartean gitarra jole flamenko batekin egiten dituzten bi pieza. "Pandemiaren urte horretan etorri behar zen gitarra jolea ezin izan da aurten etorri, eta beste profesional bat etorriko da haren ordez".

Itzulera

Oholtzaren gainean kontzerturik eman gabe egon arren, Burundar txistulariak taldea urte hauetan ez da geldirik egon eta erritimoa mantentzea "zaila"

BURUNDAR TXISTULARIAK TALDEAREN KONTZERTU BAT ETA BAKARRA DA

izan den arren, hainbat emanaldi eskaini dituzte, hala nola Olaztiko festetan, Ziordiko festetan eta zortzikoaren aurkezpenean, Altsasuko festetan, Bakaikuko Ondarraren omenaldian eta inguruko herrietan kalejirak eta dianak. "entseatzeko jarraitzeko eta eritimoa ez galtzeko" adierazi dute. Baina kontzertua antolatzea "lan eta esfortzu handia" dela esan du Urizarrek, beraz, denbora pasatzen joan da eta antolatzea kostatzen zitzaien: "Musikari handiek esaten duten bezala, estudioan sartzea kostatzen zitzaigun".

Antzokira itzultzea erabaki dute aurten, eta *Lau urte eta gero hau!* kontzertuarekin egiten dute. Bertan behera gelditutako kontzertu horretatik zenbait pieza hartu dituzte, eta "handiagoak" egin dituzte. Bi obra gi-

tarra joleak flamenko batekin egiten dituzte, esaterako. "Errepertorioa berritzea gustatzen zaigu. Guk esaten dugu txistuarien XXI. mendera garapena egiten dugula". Orain arte jo izan dituzte obrei eta oso zaharrak direnei buelta bat eman diete Burundar Txistulariak taldekoek, "eta harmonizatu egin ditugu". Gitarra joleak ez ezik, metalezko instrumentuek ere parte hartuko dute kontzertuan. "Oso polita gelditzen da".

Aurtengo nobedadea *Ziordiko Zortziko* izanen dela esan du Urizarrek. "Ez da berez nobedadea, baina gauza bat da plaza batean entzutea eta ikustea eta beste gauza bat da antzoki batean, toki itxi batean entzutea. Askoz gehiago apreziatzen da: nabardurak, melodiak...". *Ziordiko Zortziko* 2022an berreskuratu zuten. Karlos Sanchez txistulariak eta Burundar Txistulariak taldeko kideak moldatu zuten, herriko hainbat doinu eta melodia berreskuratu. "Melodia asko berreskuratu dira, Delfradek jotzen zituenak; gauza oso politak daude zortziko horretan". Suite bat dirudiela esan du txistulariak, "zerbait sinfonikoa geldituko da". Dantzariak ere parte hartuko dute abestian.

Kontzertu dinamiko eta entretengarria emanen du Burundar Txistulariak taldeak datorren larunbatean. Erregistro aldaketa asko daude: "Nahasketa egiten dugu: melodia indartsuak eta lasaiagoak. Itziar eta Erkuden Flores abeslariak bi abesti oso politak eta erritmikoak ere abestuko dituzte. Uztartzen joan gara. Bat melosoagoa bada, hurrengo indartsuagoa izanen da". Erritmo aldetik gorabeheratsua irudikatzen du Urizarrek kontzertua: "Gauzak egiten ditudanean ikus-entzule bezala jartzen naiz, eta zer gustatuko litzaidake ikustea galdetzen diot neure buruari. Orduan hasten naiz gora eta behera, zerbait potentia, zerbait lasaia". Burundar Txistulariak taldearen kontzertu bat eta bakarra da, eta kalean ikustea edo "toki itxian eta akonpainamenduarekin" ikustea guztiz

BESTEAK BESTE, GITARRA JOLE FLAMENKO BATEK PARTE HARTUKO DU KONTZERTUAN

desberdina da. "Jendea harrizten da etortzen denean, ez du espero eta oso pozik ateratzen da".

Altsasuko festen ondoren, urri aldera, hasi ziren kontzertua prestatzen. "Aurretik zerbait egin geneukan, baina orduan hasi ginen programa begiratzen eta prestatzen. Hamabost bat partitura hartu genituen eta aukeratu joan gara". Kontzertuak ordubete inguru iraungo du eta hamar bat abesti joko dituzte. Oholtzaren gainean hogege musikari baino gehiago egonen dira, eta zenbait abestitan piano jolea eta perkusionistak ere arituko dira.

Etorkizuna

Altsasuko egoera ezagututa, txistularien taldearekin "larrituta" dagoela esan du Urizarrek. "Jotzen ari garenak 60 urte inguru ditugu eta atzetik ez dator jendea bultzatzen, eta etortzen direnak ikasketak direla-eta taldea uzten dute. Musika eta Dantza Eskolan bilera bat egin zuen txistu ikasleekin proiektu bat proposatzeko, "eta ez dut erantzunik jaso; ikasturte hasieran izan zen".

Urizarrek 50 bat urte daramatza jotzen. "Asko gustatzen zait, odolean daramat. 11 urterekin hasi nintzen, eta 12 urterekin esaten zidatenean, nahi duzu gurekin etorri jotzera? nik baietz esaten nuen, beti. Orain gazteei esaten diezu eta ez dira animatzen". "Larritzen" duen beste gauza bat da Dantzari txiki Eguna ospatzen denean, esaterako, berak deitzen dituela. "Eta egia da dantzak jotzea ez dela batere erraza eta esperientzia behar dela, baina ikasleak nirekin etortzen badira ikasten joanen dira, eta ni erretiratzen naizenean ordezkoak egonen dira; oinarri bat egonen da". Egoerak berdin jarraituz gero, hamar urtetan Altsasun txistularirik gabe geldituko direla aipatu du. "Nik esaten diet etortzeko, eta haiekin joanen gara, entseatzeko dugu, partiturak joko... Konfiantza sortu behar da, taldea egin".

Txistua jotzen kalean ikasten dela esan du Urizarrek: "Ordu bat kalean klase hilabete bat da. Kalera atera behar gara, ez delako bakarrik jotzea: bitartean ibiltzen joan behar zara, bestea entzun behar duzu, zein partetan goazen jakin?.. Eta aldi berean senideek eta lagunak agurtzen zaituzte".

"Bolumena hartzeak seriotasuna ematen dizu"

Uharte Arakilgo Itxesia auzoko hamalau etxebizitza atari edo bloke eta 56 etxebizitza hartzen dituen esku-hartze orokorreko proiektua egiten ari dira. Idoia Tapia Lusarrek eta Juanjo Gorrotxategi Larreak azaldu digute zergatik ari diren lanak egiten, eta nola

Alfredo Alvaro Igoa UHARTE ARAKIL

1 Etxeko leihoetatik aldamiokak besterik ez dituzue ikusten?

Idoia. Bai, baina pozik hala ere. Lastailean muntatu zituzten. Gurean despedituta dituzte lanak. **Juanjo.** Gurean lanak aurrera-tiak dituzte.

2 Zer lan egiten ari zarete?

I. Teilatua erabat berritu dugu. 6 cm-ko lodiera duen isolatzailea eta gainean teilak jarri dituzte. Teilatupean 6 cm-ko isolatzailea. Fatxadetan 12 cm-ko isolatzailea jartzen ari dira.

3 Zergatik lan hori?

J. Etxeek 45 urte inguru dituzte eta berritze premia handia zuten. Bestetik, etxeko leihoak eta atek kalitate hobegokoengatik aldatu ditugun eran oso nabarmen gelditu ziren etxebizitzaren gabeziak: habeetako hotz-bero transmisioak eta hori guztia. Horrek zerbait osatuagoa egitea eskatzen zuen.

I. Etxe barruan ez baduzu ezer egin oso agerikoak dira hezetasuna-eta. Bestela, gauean aldaketa termiko oso handiak egoten ziren, lau gradu edo gehiagokoak. Pasada bat zen. Dagoeneko aldaketa nabaritzen dugu. Eta teilatua berritzea premiazkoa da. Gu teilatupean bizi gara eta handik bero galerak genituen neguan eta bero sarrerak udan. Gainera, teilan materiala deseginda zegoen dagoeneko.

4 Zer onura ekarriko dizue horrek?

J. Berogailuan pila aurrez-tuko dugu. Azkenean bizi kalitate da: goxotasuna etxe barruan, etxea agudo berotzea, beroa errazago mantendu... Bizitzeko askoz gaitasun hobea da.

5 Atari bat baino gehiago elkartu zarete. Zer onura du elkartzeak?



Juanjo Gorrotxategi Larrea eta Idoia Tapia Lusar, aldamiokak atzean dituztela.

I. Arkitektoak proiektu bakarra egiten du denondako. Atari bakar bat egiteko eraikuntza enpresa askok ezezkoa ematen dute. Baina batzuk izanda, lan bolumen handiagoa izanda, animatu egiten dira. Horrek aurrezteko aukera ematen dizu; denok gure poltsikoa begiratu behar dugu.

6 Guztira 56 jabe zarete, denak ados jarri zarete?

J. Hamalau atarrietatik zazpi egitera goaz momentuz. Kosta egiten da bat etortzea, hori da arazo handienetakoa. Idoiak esan bezala: bolumen pixka batean sartzen zarenean seriotasun bat ematen dizu entitate batzuen aurrean: udala, Nasuvinsa... Bolumena hartzearena jendeak ikusten du, onuragarria da...

7 Kanpoan gelditu diren etxebizitza blokeek bat egin dezakete proiektuarekin oraindik?

I. Bai, Europako dirulaguntza eskatzeko epea garilaren 31ra

arte luzatu zuten, eta kanpo gelditu zirenek eska dezakete. Baina bere etxea birgaitu nahi duen beste edozein herritarrek ere eskatu dezake. Guk finka administratzaile batekin lan egin dugu. Epeak oso zorrotz bete ditu eta, egia esan, guretako oso lagungarria izan da. Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE) dirulaguntza jaso dugu. Hor diru mordo dago eta bukatzen denean bukatu da. Ilan jartzen zaituzte.

8 Atari asko zaretenez, esku-hartze orokorreko proiektua da zuena. Nola egiten da?

J. Orain hiru urte lau lagun elkartu eta hitz egiten hasi ginen. Sakanako Mankomunitatearen egoitzan dagoen etxeen zaharberritze bulegoko teknikoarekin bilera izan genuen. Bestalde, Patxi Betelu Aierbek guk baino bizpahiru urte lehenago aurreneko pauso batzuk emanda zituen, baina ez zuen aurrera egin. Bai-

na han zegoen hark egindako lana, baita orduko aurrekontuak ere. Guretako oso erreferentzia ona izan zen. Teknikariak Nasuvinsara bideratu gintuen, horrelako lanetarako teknikari bereziak jarri dituelako. Haiekin oso harreman ona izan dugu. Udalak ere lan hauek egiteko interesa zuen.

9 Laguntza teknikoak izan dizue?

I. Bai. Hainbat bilera egin ziren udaletxean, udalarekin, Nasuvinsako teknikariekin, arkitektoarekin, finka administratzaileak dena pausoz pauso azalduta: zein izanen zen prozesua, noiz eskatuko ziren dirulaguntzak, noiz jasoko genituen... Hiru urte eman ditugu. Teknikaririk gabe, guk hori ematea ezinezkoa

litzateke. Eta IDAEko dirulaguntzak lortzearena, ufa!

J. Eskertu beharreko jendea da. Nasuvinsako lau teknikari pasa dira, zein baino zein jatorragoa.

10 Eta dirulaguntzarik?

I. Bai, %54 edo. **J.** Hirutik bi heldu dira Europatik, eta bat Nafarroatik. Udalaren zerbait ere.

11 Obrak noiz hasten diren badakigu, baina bukatu?

I. Ez dakigu. Lau hilabete esan zuten, luzatuko dira, baina ikusten da aurreratzen dutela. Aparen jaredorea maiz ikusten dut, arkitektoa ere bai.

J. Mereziko du. Batzuk dagoeneko gozatzen ari dira. Gainontzekoei iritsiko zaigu.

MATRIKULAZIO KANPAINA
2024-2025

ZUEN IKASTETXERAKO BEHAR DUZUEN MATERIAL GUZTIA

gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436 - 948 564 275
info@gkomunikazioa.eus · Foru plaza, 23-1. Altsasu